



# HITZAREN LAGUNA

XABIER EUZKITZE BERTSOLARITZAZ,  
KAZETARITZAZ, HIZKUNTZAZ...

**AZPEITIKO**

6 harategi hauetan bakarrik

**EUSKAL OKELA**



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.  
KALITATEKO okela nahi baduzu,  
GUREAN aurkituko duzu!"**

**Beloki**  
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62  
AZKOITIA  
Jose Artxe, 21 Tel.: 943 151392  
AZPEITIA



*bertako okela*

HARZUBIA, 26 D  
TEL. 81 60 25  
ETXEKOA 15 00 03  
AZPEITIA

**Harategia Odriozola**

Harategi  
Especializatu

Arana Kalea, 14  
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerritegia  
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an  
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4  
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBA  
TFONOA.: 943 811671

# Monumentuak

**H**anka haundi telefonika aurreko erreketaren irudia zen, ume mordoaren jolas eta sekretuen testigu izana. Franco hil eta laster kendu zuten, batek daki nora. Zaila da orogarriez hotzean jardutea. Gertaerak, sinboloak eta pertsonak nabarmentzeko monumentuek hutsa behar izaten dute jendea mintzeko. Eta hizketa gai bihurtu dira berriz: Xoxoteko San Inaziori erasoia, Francoren aldean hildakoen plakakentzea, Pasaiaiko sarraskian hildakoei idatzia berritzea... Oroitariek galderak sor-

tzen dituzte. Nola-noiz jarri zuten? Zergatik? Zeinek? Iraganaz, orainaz-eta hausnartzea eskatzen dute. Eta emandako erantzunak isilik izaten dira batzuk, ozenak besteak eta, inoiz, bortitzak ere bai. Enparan atzeko monolitoa maiz bota dute, Artetxeren burua ibaitik atera zuten behin, San Inazioren irudiari azpi aldean puskatu diote... "Ezjakin basati" izendatu ditu ekingintza horren egileak Udalak. Iritziak iritzi, sinboloak ere ez daude historiaren epaitik libre, nahiz askotan geure sentimenduak eta ideiak

kolpatuta bezala sentitu barruan. Baina, sinboloak dira, eta pertsonak beti jo izan ditugu lehenagokoak, inportanteago. Hala erakutsi ziguten, behintzat... Gero, ordea, monumentu bati egindakoak sortzen duen aztoramenaren erdirik ez du eragiten, kasurako, lanean hildako herriko portuges batek. Ez Udalaren agiririk, ez legez inor pertsegitzeko promesa. Gauzak nolako begiz edo betaurrekoz ikusten diren izango da... Parkeko Karmelo Etxegarai bakartia antiojorik gabe utzi zuen belaunaldikoa naiz.

## uztarria ▶

### UZTARRIAREN DATUAK ▶

**Argitaratzailea.** Uztarria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

**Telefono eta fax zenbakia.**  
943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@topagunea.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 78.a (2006ko azaroa)

**Urtea.** VIII.a

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Web orria.** www.uztarria.com

**Diseinua.** **EREGI**  
EREGIA EUSKARAREN ERREGIA

**Publizitatea.**

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

**Bazkidetza-Harpidetza.** 15 03 58

**Tirada.** 2.500 ale

**Inprimategia.** Lizarra Grafikak

**Azaleko argazkia.** Enekoitz Esnaola

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik



### [**u**-iritzia]

- 06 Iritzia.** Jon Larrañaga kazetaria Uztarriaren iritzi-emaile berria da eta bi hilean behin artikulua egingo du.
- 08 Inkesta.** Uztarria herritarrei Erorien gurutzearen plaka aldatzea zer iruditzen zaien galdezka aritu da.

### [**u**-mamia]

- 12 Txikiteoa.** Galtzen ari den ohitura da txikiteoan ibiltzea. Usadio horren kronika herriko txikiteroekin.
- 14 Klik.** Ikastolaren sorrerako uneak argazkitan.
- 20 Euzkitze.** Xabier Euzkitzeri elkarrizketa luze eta zabala.



### [**u**-jakiteko]

- 26 Esnaola.** Anastasio Esnaola fraide hil berriaren azken 30 urteetako poemak bildu dituen liburua atera dute.

### [**u**-euskara]

- 36 Hitzaldia.** *Internet eta euskara* lelopean, Luistxo Fernandezek hitzaldia emango du azaroaren 8an, Uztarriak antolatuta.



**UZTARRIA AZPEITIKO HERRI  
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK** ▶  
(erakunde publikoak)



**AZPEITIKO UDALA**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**



## Enbido ▶



Koldo Aldalur

# Ikasleen merituak

**S**einale txarra. Txikitan, kotxeak garbitzen aritu nintzen; gaztetan, arraindegian; geroxeago, gereziak eta melokotoiak biltzea zer den ikasi nuen; ikasle segituan, eta ostean, irakasle. Eta, oraingoz, kazetari lanetan ari naiz. Esana, seinale txarra. Pobrea seguru.

Abantailatxoia badu, ordea, ofizio horiek guztiak probatu izanak. Badakit guztietan zein den, dudarik gabe, niretzat gogorrena: ikaslearena. Gurasoentzat, askotan, alferra; dirurik ez poltsikoan; azterketek barrenean sortu ohi duten egonezina; irakasleen menpe egon beharra; geroari begira zalantzak...

Probatu ez duenak ez daki. Azterketa bezperan, komunetik sofara eta sofatik komunera. Larri. Egunean bertan, orrialde zuriak ematen duen ikara. Oso larri. Azterketa egin eta gero, ikaskideekin egoteko beldurra, esan ez diezazuten emaitza halakoa zela eta ez honakoa. Huts izugarria. Nor zaren ikustea galarazten dizun huts ikaragarria. Notak.

▶ **EGOERA EZBERDINAK.** Gainera, egoerak ez du irtenbide errazik izaten. Begira, ikus dezagun nolakoak diren ikasle azpeitiar arrunt baten familia tipoak eta, ondorioz, gehienetan azaltzen diren egoerak.

1. Gurasoek 14 urterekin utzi zuten eskola: "Besterik ez daukan ba egiteko! Segi gelara, eta dena ikasi arte egon hadi bertan!", "hire adinarekin lan piloa egina nitunan ni!", "parrandarekin bakarrik pentsatzen dun alfer zahar horrek!", "Mari Karmenen alabak bai, ekarriko ditin nota ederrak!", "a zer kazuelakada presta daitekeen buruan ditunan txoriekin!".

Eta horrela, erretolika luzea. Badakizu, norberak egin ez zuena besteentzat...

2. Gurasoak unibertsitatetik pasatutakoak dira:

"Guk egin genian eta hik ere egin beharko duk. Gizarteak ezingo dik ba atzera egin!", "ikusiko duk unibertsitatera iritsitakoan!", "ordungo irakasleak eta oraingoak ez dizkidak ba konparatuko!", "gaur egungo ordenagailuak izan bagenitu!", "aitzakarrik ez. Azterketak gainean dituk eta segiok ikastera!".

3. Gurasoetako bat ikasia eta bestea gaztetatik lanean hasitakoa:

– "Lagaiozu. Total, ikasita ere, gero igual ez du lanik izango!

– Lagatzeko al diozu? Zuk ba al dakizu nolako curriculumak ikusten diren orain bekadunen artean ere?

– Uzteko bakean!

– Ezetz ba! Horixe bakarrik falta zitzaizun. Gurasoak haserre, eta zu gudu-zelaiaren erdi-erdian hantxe.

4. Gurasoak zure ikastola edo eskola bereko maisu edo maistrak dira; *no comment*. Haserratzea ere ez da-eta komeni. Dena den, jakizu Bagdadeko plaza batean zaudela Ameriketako Estatu Batuetako bandera soil batekin estalita. *Alea jacta est*.

▶ **IRTENBIDEAK.** Bukatzeko, irtenbideren batzuk:

– Ikaslearena ofizio gogorra dela garbi dagoenez, gurasoek aitor dezatela hori hala dela, eta asteroko pagaren orde ondo merezitako soldata ezartzea (karidadetik bizi zarela pentsa ez dezaten).

– Noizean behin gurasoei azterketak prestatzen laguntzeko eskatzea (ikusiko duzu zein azkar topatuko duten edozein aitzakia alde egiteko).

– Adin batetik aurrera –jo dezagun 14 bat urte tik gora-edo– klaseak goizetan bakarrik izatea (lantegi askotan ez al da ba horrela egiten?).

Benetan meritu handikoa da ikaslea izatea. Saiatu egin behar eta, gainera, baldintza horietan... Izan ere, azkenean, apunteen eta azterketen aurrean, beti bakar-bakarrik zaude zu. Nire miresmenik handiena duzu. Eutsi, merezi du eta!

## HILEKO ESALDIA ▶

Ados ez bazaude, egin aproba

Zer da zuhaitz bat sustrairik gabe?

kilikolor kopistegia = kimetz ileapaindegia

kimu bat jardineritza

lidia jantzi denda - martina isasti jantzi denda

motx ileapaindegia

mugi kirolak - natura belardenda

torrealday aholkularitza

urrestilla jantziak

deneke behar ditugu gure sustrairiak,  
senideak, lagunak...  
Herriak ere baditu.

ALDE ZAHARRA

egin zaitez bazkide - Tel 943 81 08 95





Jon Larrañaga

# Aldaketak

**U**rteak daramatzat horrelako gauzak hesiaren beste aldetik ikusten eta orain arraroa egiten zait alde honetan egotea. Zeri buruz idatziko dut? Zer esango dut? Gustatuko ote zaie? Zerbait interesgarria esango ote dut?... Aldaketa handia da niretzat. Beno, beste bat gehiago... Izan ere, azkeneko boladan konturatu naiz aldaketa pertsonalen zurrunbiloan buru-belarri sartuta nabilela. Hori bai, nik neuk aukeratutako aldaketen zurrunbiloan... Ezberdintasun handia dagoelako aldaketak kanpotik eragindakoak izan ala zeuk sortutakoak izan, ezta?

Orain gutxi arte ezberdintasun hori ez nuen hain argi, eta munduarekin erdi haserre ibili naiz (askotan diote "katastrofista" samarra ere banaizela, badaezpada diot).

▶ **KONTURATU GABEKO ALDAKETAK.** Baina, esan egia: ez al duzue pentsatu inoiz egun batetik bestera bizitza erabat aldatu zaizuela, konturatu ere egin gabe eta nahi gabe? Hain lasaia eta ederra zen zure bizitza, erabat aldatu da: lagunek bikotekidea aurkitu dute, asko herritik kanpora joan dira bizitzera, beste asko garaia baino lehen 'zahartu' dira, haurrak agertu dira eta, bat-batean, denak mendizale eta lasterkalari bihurtu dira (Azpeitian tipikoa...).

Garai bateko aste erdiko kafeak, Exkerretegi kanpoko solasaldi filosofikoak... denak egun batetik bestera bukatu dira, eta dena konpromiso eta erantzukizun bihurtu da...

▶ **OHITURA ALDAKETAK.** Kontu horietatik kanpo gelditu garenok edo gaudenok, noraezean gelditu gara... Bizitza aldatu digute, guk eskatu ere egin gabe... Esate baterako, egun batetik bestera parrandako lagunik gabe gelditu gara. Zapaturu Eperran arratseko zortziretan gelditzetik, igande eguerdiko mendi buelta eta soziedadeko bazkarira igaro gara... Eta, barkatu, baina ez da gauza bera.

Gauzak horrela, kontu horiek ahaztu nahian kalera ateratzen bazara (beti dago lagun solidarioen bat, edo zu bezalako 'kolgautako' bat...), panorama ez da askoz hobea.

▶ **OHITURAK.** Hor ere 'aldaketa' nabarmena ikusten dut. Niri begi-bistakoa egiten zaidana eta konplexuz betetzen nauena. Azpeitia osoa txikipark bihurtu dela dirudi! Gu ia 18 urte egin arte '*salajuego*sean' egoten ginen eta gaur egun 13 urtekoak goizeko lauretan tabernak ixten aurkitzen ditut... Non gelditu da inon idatzita ez dagoen baina gure garaira arte behintzat, denak errespetatzen genuen Fideoneko legea? Ia 20 urtera arte ez ginen gu 'zaharren' taberna horretan sartzen! (Nik uste hori gehiago dela adinaren kontua ondo ez daramadalako, baina tira...).

Amorrua, inbidia, moskeoa... dena nahastuta ditudala konturatuko zineten honezkero, ezta? Eta, garrantzitsuenak: beti errua besteek dutela.

▶ **ZER PENTSATUA.** Horri guztiari bueltaka nabilela, Mari Tere eta Kontxu etorri zaizkit burura. Zer pentsatuko ote dute nire negar tonto hauez Azpeitiko lehen Ikastola hartan euskaraz irakasten hasi ziren bi andereño haiek? Zezenari adarretatik eutsi eta inori eta ezeri beldurrik eduki gabe (eta izan bazuten ere ondo disimulatu zuten) gauzak aldatzeko grina erakutsi zuten andereño haiek? Erosoagoa eta errazagoa izango zen zeuden moduan jarraitu, ke-xatu eta 'bizitza zer gogorra den' esaten jarraitzea, ezta?

Eta zer diozue ikastetxe erlijioso eta 'betiko' eskolak alde batera utzita, euskaraz hazi, hezi eta ikasteko lehen Ikastola hartara haurrak bidali zituzten guraso haiez? Haiek ere beldurra eta urduritasuna izango zuten, baina ke-xatu eta 'betikoa' den bidea hartu beharrean, aldaketaren aldeko bidea hartu zuten. Eta eskerrak! Garai haietako hazitik sortu eta etorri garrelako ondorengoak.

Beraz, ez dakit zuek baina nik horixe egin behar dut: ke-xateari utzi, aldaketei bidea eman eta apustua egin, nahi duzuna egitearen aldeko apustua egin. Animatzen al zarete?

## HILEKO ESAERA ▶

Umeen Supernnany dago, gazteena martxan omen, noizko politikariena?

**LORE ARDENDA**  
**LORE SORTAK**  
**KOROIAK**  
**LORE APAINGARRIAK**

Etxeetarako  
 zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87  
 Loiolabide, 25

**Amenabar**  
**DENDA**

gortinak, ohazalak,  
 edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO**  
**MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

**kutxa**

**KIRURI**  
**JATETXEA**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
 Tfnoa.: 943 81 56 08  
 Faxa.: 943 15 03 62

**Koh Tao**

**OSAGARRIAK**

Foru Ibilbidea, 3  
 Tel.: 629 688 193  
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

**LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
 LABORALA, KONTABLEA  
 - FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45  
 Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
 e-mail: luba.ase@euskalnet.net

arte eta diseinu ikastegia

**gpi**

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00


Jose Artetxe kalea, 3  
 669 414 025 - 619 586 652  
 matrikula urte guztian zabalik

**IRAKASLE TITULUDUNAK ETA ESPERIENTZIADUNAK**  
**CAMBRIDGE, HEQ, TOEFEL**  
**HAURRENTZAT KLASE BEREZIAK EGUARDIAN**  
**ESKOLAKO INGELESERAKO LAGUNTZA**

**ENPRESETARAKO INGELESA**  
**HELDUENTZAT MAILA GUZTIAK**  
**ERRELEBOETAKO LANGILEEI PREZIO BEREZIA**

**CENTERPOINT ACADEMY**  
 Ingelesa ikāsteko bide zuzena

Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. Tel.: 943 81 65 03



**Jakin**  
 haizea dakiten orriak

Harpidetuz zaitetz eta oparia jasoko duzu  
 deitu: 943 218092  
 Idatzi: jakin@jakingunea.com  
 Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro  
 Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

**50**  
 URTE  
 Jakin GURE  
 KULTURAREN  
 ALDIZKARIA

## Trauskil ▶ Jon Berdejo



## Hau ▶



Aitor Aranguren

## Zahartzen eta...

**U**rtaro bakoitzari berea, baina udaberria eta udazkena gogoko ditut bizitzan ere. Udaberria primerakoa da esnatzeko, pizteko eta indarrak hartzeko, baina nahi baino azkarrago pasatu zitzaidan. Eta orain 43 urterekin udazken betean. Udazkeneko kolore horixkak, su-ondoan sortzen diren antzeko lasaitasun uinak sortarazten dizkit eta ez da arraroa horiek malenkoniak betetzea, bereziki momentu triste edo zailak harpatzen bazaitu. Gainera, une horiek sortzen duten zurrumbiloan biraka zaudela, barruak astintzen dira eta nonbaiten, gure baitan, barrenean ahaztuta dauzkagun oroitzapenak azaltzen dira. Denak, onak eta txarrak, datak, aurpegiak, muxuak eta haserreak... denak nahasian.

Saiatu al zarete lepoa jiratu eta atzera begiratzuz bizitakoari erreposoa ematen? Baina denbora hartuta, lasai. Hasteko ahalik eta gehien, ahal duzun gehien urrundu denboran zehar eta handik hasi etortzen pixkanaka, makal, gaur arte. Ariketa argazki edo bideoen laguntzaz eginez gero, milaka oroitzapen, sentsazio eta sentimendu sortzen dira. Eta haika galdera: zergatik, zertarako, merezi al zuen, merezi al du, saiatu banintz, nola zuen izena, beste erabaki bat hartu banu, non ote dabil halako, zer ondo pasatu genuen, zenbat ile nuen, zein leku zoragarri...

Jaio, hazi, ugaldur eta hil. Milioika espezieek egiten dute, baina film laburra eta aberatsa izan daiteke gizakiontzat. Bizitakoak ez du bueltarik baina ikasitakoak balio beharko luke bizitzeko daukaguna hobeto igarotzeko. Baina, mesedez, behin bizi eta kito, ez nazatela reenkarra. Atzera gehiegi begiratzeak lepoko mina dakar, eguzkia goizero ateratzen da eta egunerokoak berehala irensten gaitu. Lepoko mina ez dakit baina beste nonbaitekoa gustura jarriko nioke Azpeitian Urola ibaiko zuhaitzak mozteko agindu duenari. Badakizue, zahartzen eta...

## Galdetuz ▶

### Zer iruditzen zaizu Erorien Gurutzeko plaka aldatzea?

#### JOXIN REKONDO ▶

azpeitiarra



“Ez zait gaizki iruditzen plaka Espainiako Gerran hildako denen alde jartzea. Batzuek adina arrazoi dituzte besteek oroimenean izateko. Ondo iruditzen zait, beraz”.

#### XABIN ARRIZABALAGA ▶

azpeitiarra



“Niri monumentu hori kendu egin nahi zutela esan zidaten eta ez zitzaidan gaizki

irudititu. Baina han senitartekoren bat dutenei, agian, axolako zaie”.

#### ASENSIO UNANUE ▶

azpeitiarra



“Ni askotan joaten naiz hilerrira, eta plaka aldatzea bera hobea izango dela uste dut. Gerrako

kontu horiek tristeak dira eta ez zait gehiegi gustatzen hitz egitea”.

#### JOXE ALBISUA ▶

azpeitiarra



“Plaka aldatzea gaizki ez zait iruditzen, hildako denek dutelako oroimenean izateko

eskubidea. Horregatik, ondo iruditzen zait”.



## Apunteak ▶

### GORA.

Azaro hasieran herritik Landetara autobusak jarri dituzte langileentzat. Helburua: trafikoa arintzea. Orain kontzientzia hori hartu behar.

### BEHERA.

Azkenaldian Pilotaleku aldean zenbait dendetako erakusleihoetako kristalak puskatuta azaldu dira. Zapatu iluntzeetako parrandaren ondorio ilunak dira.

### BEHERA.

Urola Kostan, adibidez, *Hitza*-k, Txaparrok, Uztarriak, eta Azpeitiko eta Zarauzko udalek Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten tokiko telebisten dekretuan bermatzeko euskarazko telebistak kateak egotea. Ez du kasurik egin Jaurlaritzak, ordea.



*Hitza*, Txaparro, Uztarria eta Zarauzko eta Azpeitiko udal ordezkariak, euskarazko telebistak eskatzeko egindako agerraldian.

## Uztarria.com ▶

### Inkesta.

**Beste herrietako Kilometroetan, Nafarroa Oinez... behin ere lagundu al duzu?**

- ▶ Bai. %45.
- ▶ Ez. %55.

### Orain dagoena.

▶ **Inkesta.** Zein duzu bertsoak entzuteko lekurik gustukoena?  
▶ **Eztabaida.** Ikastetxeek aurten Olentzero bateratua ospatzeko aukera dago. Zer iruditzen zaizu?

## Zer dio? ▶ Jabier Altuna (Udaleko Giza Baliabideak eta Antolaketa batzordebrua)

# Motoen zarataz

**U**ztarriaren azken-bigarren atalean (76. zenbakian, abuztuko alean), Xabi Bordak galdera bat egiten zuen bere artikuluan motoen zaratekin Udaltzaingoak egindakoari buruz. Galdera, honakoa zen: "Ez al ziren udaltzainak motoen zarata kontrolatzekoak?". Galdera hori erantzuteko asmoarekin doa honako idatzi hau.

1. Aurten, opor aurretik, hamar motok pasatu dute zarata neurketa. Orain, egun hauetan, gehiagotan egiten ari da Udaltzaingoa.

2. Lau moto handi eta bost moto txiki ('*minimoto*' bezala ezagutzen diren horiek) jaso dira Udal Biltegiara, ateratzen zuten zarata neurritz kanpokoa zelako.

3. Gainerako gai hauek ere kontrolatu dira:

- Kaskoa erabiltzea.
- Paperak, aseguruak...
- Abiadura, desegoki edo arriskutsu gidatzea...

– Piezen trukaketa (hainbat moto-jabek piezak aldatu behar izan dituzte).

Gai horiengatik, hamarnaka isun jarri dira. Kasu batzuetan, gazteen gurasoeekin ere hitz egin da, beraien seme-alabek nola gidatzen duten ez dakitelako, isunak bata bestearen atzetik doazkielako...

4. Agindu zen bezala, Udaltzaingoa lanean ari da gai honi buruz; gure ustez, egoera asko hobetu da. Badakigu oraindik moto batzuek, neurketa pasatu ondoren, berriz ere piezak aldatzen dituztela baina, esan den bezala, gainean gaude. Inguruko herrietatik etortzen diren motoak dira, hein handi batean, arazoaren sortzaile.

5. Gai honetan eta besteetan lanean jarraituko dugu, eta herritarren laguntza eskatu eta aurrez eskertu nahi genuke.

# Familia

**A**ldizkaria kaleratuko den garaian ospatuko da gure Elizbarrutian familiari buruzko gogoeta astea. Aurreko urteetan bezala, zenbait hitzaldi, ekitaldi eta ospakizunek osatuko dute aurtengo egitasmoa.


Gai horri heldu zion, duela hilabete batzuk, HOAC (Hermandad Obrera de Acción Católica) erakundearen Batzorde Iraunkorak. *Lan duina familiarentzat, familia bat bizitzarako* titulupean plazaratutako gogoetak, langile familiek egun bizi dituzten zailtasunak agerian utzi nahi ditu. Horien artean, lana eta famili bizitza bateratzeko bizi dituzten zailtasunak. Gaur egun nagusi den produkzio eta kontsumo sistemak familiarengan duen eragina aztertzen ere saiatzen da. Aipatutako gozetan, besteak beste, honoko iritzi hauek plazaratzen dituzte:

Lanak pertsonen eta familien bizitzan, bai eta gizarte bizitzan ere, duen garrantzia erabakigarria aipatzean, lan harremanetan bizi dugun malgutasunak familia bizitzan duen eragina aztertzen dute. Malgutasunaren hainbat alderdi aipatzen dute. Horien artean malgutasun geografikoa, familiek lana dagoen lekura inguratu behar izaten dute eta. Lan ordena: lana, ordu eta txanda ezberdinetan egin, eta atseden egunak aldatzera behartzen ditu hainbat lagun; eta, azkenik, lan sarien malgutasuna, ziurtasun ekonomiko minimoa bizitzea zail egiten duena.

Errealitate horrek oztopo larriak jartzen dizkio familia bizitzaren garpenari; eta giza harremanak errazten ez dituen bizitza eragiten du. Lan bizitzak, izan ere, bizitzaren gainontzeko alderdiak bere menpe hartzen ditu: pertsonala, familiarra, gizarte bizitza...

Bukaeran diotenez, erronka berri bat dugu: "Pertsonen famili eskubi-deak eta familien gizarte eskubi-deak" zein diren aztertu, erabaki eta aldarrikatzeko erronka.

## ◀ Eta beste



Kepa Susperregi



## Bat hirutara ▶

▶ Mikel Aizbitarte, Xabier Aranburu eta Haizkurgi Uzin oraingoan Triku Festaz eta Gaztetxean izan zen kontzertu batez aritu bira. Besteak beste, zapatu iluntzetako istilu batzuez eta musikaz ere idatzi dute.



Xabier Aranburu Mikel Aizbitarte Haizkurgi Uzin

# Espineteren lagunak

**M**ikel. Dagoeneko hasiak dituk herriko plazan *karpie* montatzen. Urtero bezala, Espinete zaleek irten ditek euren zulotik, herriari bizi pixka bat emateko asmoarekin.

**Haizkurgi.** Zer Espinete eta zer Don Pin-Pon gero! Bazakiat Azpeitian gertatu ohi diren zenbait gertakizunek *Barrio Sesamo*-ko atalik zelebreenaren inbidia handirik ez dutela, baina zer arraioz ari haiz?

**Xabier.** Postaririk ez al da iristen hire etxera, ala? Badituk egun batzuk Azpeitiko Triku Musika Elkartearen triptikoa iritsi zela gurera, aste bukaerako Triku Festaren egitaraua azalduz.

**Mikel.** Nola ausartuko duk ba postaria Haizkurgiren etxera jotaten, inguratzen den guztiari txakurra askatzen zioke eta? Galdeiek *Buxi Beltza*-ri bestela, ipur masailean nola egin zioan hozka *Txispa* piztia basatiak.

**Haizkurgi.** *Txispa*-ri irainik ez gero, hire aurka oldartzerik nahi ez baduk, behintzat!

**Mikel.** Lasai, moteil, ez hadi horrela jarri! Badakik txakurak ez ditudala gogoko. Aukeran nahiago aste bukaeran Azpetiko plazan bilduko den 'triku' pila, beraien ile tenteak eta guzti.

**Xabier.** Irrikatzen nagok asteburua iristeko. Egitaraua ikusita, festaren arrakasta bermatuta zagok. Aurtengoa, seigarren Triku Festa diagu, herrian guztiz errotzen ari den seinale. Triku Festaren atzean, ordea, azpiegitura handia mugitzen duk, Urrestilla eta Zubi-Zaharreko Azpeitiko musika taldeek osatutakoa. Guztien buru *Age* duk, konplexurik gabeko popero zaharra.

**Haizkurgi.** Hau duk gurutzea gurea! Nola esan dezakek Urrestillan eta Zubi-Zaharren biltzen den jendillajeak musika taldea osatzeko gaitasuna duenik! Horiek zarata besterik ez ditek egiten. Herriko plaza inguruan bizi direnez errukitzen nauk; hori duk tortura jasan beharko dutena aste bukaera lazgarrian.

**Mikel.** Hori duk belarri fina duena gure mutilak! Igande goizeroko leloa ez duk ba askoz hobea! Izan ere, *Xuber*-i bere bandarekin kalejira egin behar duela sartzen zaionean kazkezurrean, akabo gu guztion amets gozokak. Hori dena, dul-tzainariak, txistulariak, edota motxaileen aker eta tronpetaren *show*-a ez aipatzeagatik.

**Xabier.** Kontua ez duk

musika klase bat ona edo txarra den esatea, norberari gustatzen zaiona baizik. Ederki jabetzen nauk Triku Festako talde guztiak ez direla nire gustukoak izango, baina garrantzitsuena bertan sortuko den giro alai eta jatorra duk. Azpeitiko gau giroa bukaerarik gabeko maldan behera zoak, eta horrelako ekitaldiak dituk bizi dugun lehortetik irteteko baliabiderik onenak.

**Mikel.** Hirekin guztiz ados nagok. Ni beti izan nauk erromerizalea eta badakizue Egan, Drindots eta Gelatxo izan direla nire musika talderik kuttunenak. Hala eta guztiz ere, gustura asko hurbilduko nauk plazako karpia, bertan egongo den giro bikainaz gozatzen.

**Haizkurgi.** Hori duk inozo pare hori! Etxeko musika kate-

an bakoitzak entzun dezala nahi duena, baina hortik herriko plazan kontzertuak ematera bazagok alde nabarmena.

Musikak izugarrizko erakarpen indarra dika eta, tartean alkohola eta drogak nahasten badira, kok-

tel arriskutsu bat osatzen duk. Urrutira joan beharrik ez daukazu, duela egun gutxi batzuk Azpeitian, skin talde baten emanaldiaren ondoren gertatutako istiluen nondik norakoak gogoratzen.

**Xabier.** Aurreko astean, skinen kontzertu baten ondorenean emandako istiluak ez dituk ohikoak. Beroaldi baten ondorenean gertatutako txikikeri bat besterik ez huen izan. Gainera, borrokan aritu zirenak ez zituan azpeitiarrak.

**Haizkurgi.** Ez hadi saia zuritzen, zuritu ezin dena. Aurreko asteko istiluak oso larriak izan zituan eta ez duk lehenengo aldia, gainera. Galdeiek gure lagun *Rouko*-ri, nola bere etxean sartu eta izugarrizko txikizioak egin zituzten gazte batzuek kontzertu baten ondoren.

**Mikel.** Musikaren indarra, jendearengan mota guztietako sentimentuak sortzeko duen gaitasunean zagok. Hori izatez, zoragarria duk, baina musika, sentimenduak sortzeko baliabidea izatetik, talde baten ekin-tzak eta joerak babesteko dituen jomuga izatera pasatzen denean, arriskutsua izan ziteke. Aitzitik, Triku Festaren filofisfia garbia duk, musikaren erabilpen anitza, han bildutako guztien gozamenarako. Horregatik, Gora Triku Festa eta *Age* zaharra!





# galtzen ari den ohitura: TXIKITEOA

**Baso-erdia eskuan hartuta gero eta jende gutxiago ibiltzen da kalean tabernaz taberna. Txikiteoa galtzen ari da. Hemen arratsalde bateko kronika**

► Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe

**E**z da dagoeneko hain erraza Azepeitian parte zaharrean txikitero kuadrila bat topatzea. Lagun gutxiko talde batzuk ibiltzen dira, baina kuadrila handirik ez. Orain urte batzuk lagun talde handiak eta ugari ibiltzen ziren astegunetan txikitoak hartzen, baina galtzar den ohitura da aste barruko txikiteo hori.

Duela 20 bat urte egunkari bateko erreportaiari, izenburuan: *'Azepeitia, la capital del txikiteo'*. Orain ezin izenburu igualik jarri. Orain hilabete pasatxo, berriz, Ardo Dastaketa eguna egin zuten Azepeitian; ardoaren inguruan berriro jendea elkartzeko aukera izan zen.

► **ARRATSALDEKO ZAZPIAK.** Iñaki Bergara *Iñaki Pio* zazpiak puntuan Mendizaleetan da. Han elkartzen da beste lagun batekin, egunero ordu horretan. Urte asko daramatza txikiteoan, eta ondo asko ezagutzen ditu txikiteoaren sekretuak: "Ni zeharo gazte hasi nintzen txikiteoan, 13-14 urterekin-edo. Lanean hasi nintzen nire ilusioa hori izaten zen, txikiteora etortzea. Garai hartan jende asko ibiltzen zen, ez zegoen bes-

“Ni joandako lekura jotzen naizela, beti topatzen dut txikiteorako kuadrila edo laguna”

**IÑAKI BERGARA** ► txikiteroa

“Batuetan bakarrik ibiltzen naiz, baina inguruan daudenekin, barran dagoenarekin, denekin hitz egiten dut”

**MONSE ARANBARRI** ► txikiteroa



Iñaki Bergara, Oinatz tabernan.

terik; lanetik irten, txikito batzuk hartu lagunartean eta etxera”, dio. Garai batean dozena bat lagun elkartzen ziren txikiteorako, baina gaur egun bakarrik edo beste lagun batekin ibiltzen da. “Ni joandako lekura joaten naizela, beti topatzen dut txikiteorako kuadrila edo laguna”.

Ohitura berezia da haiena: ordu jakin batean elkartzen dira, egunero txikito kopuru bera hartzen dute normalean eta beti antzeko orduan joaten dira etxera. “Ordua garrantzitsua da txikiteorako. Guk ordutegia markatuta dugu eta egunero ordu berean ibiltzen gara”, dio Iñaki Piok.


Baina txikiteorako leku ezberdinetan ordutegi ezberdina dago. Parte zaharrean, adibidez, arratsaldeko zazpiak aldera hasten dira eta zortziak aldera arte ibiltzen da jendea. Harzubia eta Jose Artetxe inguruan, berriz, parte zaharrean bukatzen denean hasten da giroa, eta bederatzia aldera arte suma daiteke jendea. Sanjuandegin ere Harzubiko ordutegi antzekoa dute.

Oso gutxitan elkartzen dira parte zaharreko kuadrilak. “Bakoitzak bere bidea markatuta du

eta kuadrilak ez gara elkartzen txikiteoan ibiltzeko. Taberna barruan elkarrekin hitz egiten dugu, komentarioren bat edo beste, baina txikiteoa bukatutakoan bakoitza bere bidetik joaten da”, dio Iñaki Piok.

► **ZORTZIAK.** Hasi dira lanetik irten eta Juantxo Txiki, Pastorkua eta inguruko tabernetan txikiteoak elkartzen. Batzuk laneko lagunekin, besteak betiko lagunekin...; denetik dago hemen. Juan Urdineta, Antton Albisu eta Jose Mari Garate Iraurgi Saskibaloi Elkartean daude txikiteoa hartzen, elkarren ondoan. Ez dira kuadrila berekoak. Albisu beste kuadrila batekoa da, baina ez dio axola. Oraingo txikiteoa batera hartuko dute. “Gurea bezalako herri txiki batean, azken batean denok ezagutzen dugu elkar, eta lagunak ez badituzu topatzen ere ezagunen bat topatzen duzu eta horiek ibiltzen zara”, dio Garatek.

Kuadrila ezberdinetakoak izanda, ohiturak ere ezberdinak dituzte. Albisu Landetan, parte zaharrean eta Jose Artetxe inguruan ibiltzen da: “Nik egunero zortz hamar ardo hartzen ditut. Norma-



Juan Urdineta, Jose Mari Garate eta Antton Albisu, Iraurgi Saskibaloi Elkartean, txikiteoan.

lean, arratsaldean baino ez naiz ibiltzen, baina tarteka eguerdian ere ibiltzen naiz". Garatek eta Urdinetak trago gutxiago hartzen dituzte, "hiru bat, baina gaur hau laugarrena da", esan du Urdinetak.

Usoak, ahariak, ehiza, futbola... izaten dira txikiteoan dabiltzan bitartean lagunarteko hizketa gaiak. "Txikitero kuadrilan politikaz ez bada hitz egiten, ez dago arazorik. Politika kontuak aipatuz gero bai, orduan izaten dira gorabeherak eta zaratak. Gurekin hobe uso kontuan ibiltzea...", dio Garatek. Bederatziak inguru dira, etxeratzeko ordua. Basoa mostadore gainean utzi, tabernariari "bihar arte" esan eta badoaz etxera.

► **BEDERATZIAK.** Monse Aranbarri ere txikiteroa da. Amaiarenean dago barran kontu kontari. Ez dira emakume asko ibiltzen txikiteoan, baina Aranbarrik 40 urte

## Tabernariak

Beatriz Larrañaga Eguzkitza tabernako nagusia da, eta "asko" gustatzen zaio txikiteo garaian izaten den giroa: "Barran lasai zaudela polita da txikiteoan dabiltzanekin kontu kontari ibiltzea. Niri behintzat, asko gustatzen zait", azaltzen du. Txikiteroak adar-jotzaileak izaten dira normalean. "Barraren beste aldean emakumea badago, ederki jotzen dute adarra, baina beti errespetuz tratatu izan naute ni. Kontua elkar ezagutzea da, eta bromak egin bai, baina errespetuarekin". Txikiteroak berezo finak direla dio; "gure etxera txikiteora etortzen hogeitaka urte daramatzate batzuek". Eta horiei, tabernara sartu bezain pronto tragoa barraren gainean izatea gustatzen zaie. Azken batean, "txikiteroak eta tabernariak familia handia gara".



Monse Aranbarri, Amaia tabernan.

daramatza egunero ibilbide bera egiten. "Eguerdian Amaia Garmendia eta biok ibiltzen gara. Amaia aste bukaeratan ez da ibiltzen, baina ni astelehenetik jaira ibiltzen naiz", dio.

Egunero hamar txikito hartzen ditu, "bost eguerdian eta beste bost arratsaldean". "Polita da lagunartean ibiltze hori. Batzuetan bakarrik ibiltzen naiz, baina inguruan daudenekin, barran dagoenarekin, denekin hitz egiten dut".

Berandutzen ari da, eta Monse Aranbarri ere iritsi zaio etxeratzeko ordua. Bederatziak eta laurden inguru dira. Adio esan die tabernan dauden guztiei. ◀


 Euskal Herria,34  
 20730 AZPEITIA  
 Tel.: 943 15 16 40  
 Larrialdiak:  
 943 15 16 40  
**Ekain**  
 ALBAITARI KLINIKA


 ERLOJU  
 KONPONKETAK  
 Arana, 5  
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

# ikastolaren SORRERA

Mari Tere Garmendia eta Kontxuelo Odriozola izan ziren Ikastolako lehen andereñoak, eta Uztarriak ohorezko bazkide egin ditu. Garmendiak argazkiak utzi dizkio, “orain arte argitaratu gabeak”



## ▲ IKASTOLAN EGINDAKO LANA GOGOAN.

“Orain 40 urte ekin zion biderei Azpeitiko Ikastolak. Andereño nintzen neu —dio Mari Tere Garmendiak—. Kontxuelo Odriozola ere bai. Zentenerioko etxeetan genuen lekua. Argazkian, neu ageri naiz, klaseak ematen”.



## DIKTADURA GARAIAN.

“Ikastolaren sorrera nolakoa izan zen maiz azaldu dut baina ez da erraza ulertzea askorentzat. Francoren diktadura garaia zen eta Ikastola sortu genuen Azpeitian”.

## JOLASA.

“Umeak gustura joaten ziren Ikastolara. Jolasen bidez irakasten genuen guk. Guraso asko ez ziren askorik fio, baina ohartu ziren umeek ederki ikasten zituztela gauzak”.

## ZAILTASUNAK.

“Ez zen erraza izan jendea Ikastolara apuntatzea. 200 pezeta izaten zen Ikastolara umea eramatea, eta diru asko zen hori orain dela 40 urte”.



»

## GUSTURA.

“Hasierako egunetan, Ikastolara joan nahi ez zutelako negar egiten zuten umeeek. Baina gero, hurrengo egunean Ikastolarik ez zegoelako egiten zuten”.



## IRTEERAK.

“Ostegunero Loiolara irteera izaten genuen. Han jolastera joaten ginen. Inspektoreak bisita egingo zuen susmoren bat bazegoen ere, irteerak egiten genituen. Bestela, mendira ere joaten ginen tarteka”.

## BISITAK.

“Jende asko inguratzen zen Ikastola ikustera. Behin Lazkaoko apaizarekin, Lazkao Txiki bertsolaria azaldu zen. Bertso bat bota eta begiak bete zitzaizkion han ernetzen ari zenari begira”.



## Aldizkariak 7 urte

Uztarría Azpeitiko aldizkariak 7 urte bete ditu. 1999ko azaroaren sortu zuen Uztarría Kultur Koordinakundeak eta harrezkeror 78. zenbaki atara ditu. Urtetik urtera zabalkunde handiagoa izan du.



### KULTUR AGENDA ▶ Hilabetea.

Azaroa.  
**Banaketa.**  
 Asteburu honetan.  
**Non.** Herriko tabernetan eta toki publikoetan.  
**Tirada.** Mila ale.  
**Argitaratzailea.**  
 Uztarría Kultur Koordinakunde.



## 'LAN' AFARIA.

Aurten ere Uztarríak kolaboratzaileekin afaria egin du. Iaz, aldizkariko kolaboratzaileak eta Komunikazio taldeko kideak elkartu ziren. Aurten, uztarría.com-eko blogariak ere bildu dira, Ziripot soziedadean, urriaren 20n. Denera 15 lagun izan ziren; batzuek ezin izan zuten joan.

## urtebete eta gero, BLOG ATALA HANDITUZ



Iñigo Iburguren.



Olatz Prat.



Iñaki Uranga.



**erniarraitz**  
 sektorezale elkarteak

Erniarraitz Bertsozale Elkarteak.



Aitor Bengoetxea.



Blogen orrialdea.

Uztarría.com-ek webgunean blogak martxan jarri zituela urtebete da. Hasierean blog pertsonalak jarri zituen martxan, baina gutxira herriko taldeei ere bloga izateko aukera eman zien. Gaur egun, bost taldek dute bloga. Norbana koetan hamabi lagun ari dira lanean; horietatik lauk argazki-irudi bloga dute.

Uztarríak blogari asko nahi ditu, eta horretarako ari da lanean. Hala, Iñigo Iburguren, Olatz Prat, Iñaki Uranga, Erniarraitz Bertsozale Elkarteak eta Aitor Bengoetxea blogari hasi berri dira. Nahi zuk edo zure taldeak bloga? ◀



# 1.051

bazkide gara dagoeneko Uztarrían; eskerrik asko denei

## egin zaitez bazkide UZTARRIAN



### Zure datuak Uztarríari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarría@topagunea.com ▶ Telefona (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarría.com

### IZEN-ABIZENAK ▶

### HELBIDEA ▶

### TELEFONOA ▶

### KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

### NAN edo EHNA ▶

### HERRIA ▶

### E-MAILA ▶

### BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

#### Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo...*
- ▶ Euskarazko prentsa eta Azpeitia liburua.
- ▶ Loiolarik ez balitz liburua.
- ▶ Otsobeltz liburua.
- ▶ Urrestillako musika taldeak liburua.
- ▶ Azpeitiarrak Espainiako Gerran liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.
- ▶ *Urola Kostako Hitzak* (buzoiain).

### \*HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

#### Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarría eta *Hitzak* (teku publikoain).

# JOAN...



## Gurean ▶

**AINARA LEGARDON**

▶ musikaria

## “Oso herri polita eta lasaia da”

**T**riku Festan kontzertua eskaintzera etorri zen Ainara Legardon kantari bilbotarra Azpeitira. Kontzertua eman aurretik, prestaketa lanak egiten ari zela hitz egin zuen Uztarriarekin.

### Lehen ere izan al zara herrian?

Ez, gaur etorri naiz lehen aldiz Azpeitira. Beste behin Azkoitira joan nintzen, baina hona ez naiz sekula etorri.

### Zer iruditu zaizu herria?

Oso herri polita eta lasaia da zuena. Gustatu zait.

### Eta azpeitiarrak?

Oso jende atsegina dago hemen. Etorri naizenetik ongi sentiarazi naute.

### Zer iruditzen zaizkizu Triku Festa bezalako ekitaldiak?

Lehen jardun zaizkit kontatzen orain 6 urte hasi zirela, eta dagoeneko festa txiki moduko bat egiten dute.

Oso gustura nago gaur hemen kantatzeaz. ◀



## Orkatzera ertzainak

Urriaren 25ean Orkatz Kultur Elkartearen sartu ziren ertzainak, Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz inbentarioa egitera, Batasunaren ilegalizazioaren auziarekin lotuta. Euskal Herrian ehundik gora 'herriko tabernetan' sartu ziren poliziak. Azpeitian ere protestak izan ziren bi egunetan. Argazkian, ertzainak Orkatz kanpoaldean.



## Urrakiko Igoera tristea

Urriaren 8an Josu Ugarte leioaztarra hil egin zen Urrakiko Rally Igoeran. Azken igoerako azken gidaria zen Ugarte; bidetik irten eta zuhaitz bat jo zuen. Momentuan hil zen gidaria. Argazkian, autoa bera.




## Erdi Aroko azoka jendetsua

Urriaren 7an eta 8an Erdi Aroko azoka ospatu zuten herrian. Artisanu postuek eta kale animazioak alaitu zituzten aste bukaera osoan herriko kaleak. Argazkian, Albergan lanean.

## Plaka berria hilerrian


Urriaren 23an jarri zuten hilerrian Erorien Gurutzean plaka berria. Lehen, Francoren alde borroka egin zutenen aldeko plaka zegoen. Orain, aldiz, Udalak hildako denen omezez jarri du plaka.



**URRIAK 8** ▶ Parrokiko tiple ohiek ospakizuna egin zuten, Eskoziara kantatzera joan zirela 50 urte bete zirela eta. **URRIAK 8** ▶ Mikel Aranburu eta Mikel Labakak Katalunia-Euskadi lagunarteko futbol partidari jokatu zuten. **URRIAK 12** ▶ Kepa Peñagarikanok 4-22 galdu zuen Abel Barriolaren kontra, pilotako buruz buruko lau t'erdiko txapelketako final-hamaseirenetan. **URRIAK 17** ▶ EAK, gaurko lau udal zinegotziak 2007ko bozetara aurkeztea erabaki zuen: Manuel Unanue, Kontxita Martija, Mikel Ibartzabal eta Kandido Mitxelena.



**AZAROAK 3** ▶ Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta, Bertso Parrandari hasiera emango diote, 23:00etan, Orkatx Kultur Elkarteak. **AZAROAK 5** ▶ *Udazkenean abesbatza*-ren baitan, Coralia abesbatzatz kontzertua emango du, 19:30ean, Betharramdarretan. **AZAROAK 8** ▶ Luistxo Fernandezek *Internet eta euskara* lelopean hitzaldia emango du, Uztarría Kultur Koordinakundeak antolatuta, 19:00etan, Aitonena I aretoan. **AZAROAK 16-22** ▶ Eskola eta gaztetxoei zuzenduriko antzerki emanaldiak izango dira.



## ANTZERKI TOPAKETEN HASIERA ARTISTIKOA.

Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza antzezleek *Artea* antzezlaneanekin emango diote hasiera aurtengo Azpeitiko Antzerki Topaketei.

**AZAROAK 4** ▶ 21:30ean ▶ Izarraitz pilotalekuan ▶ Azpeitiko Udalak antolatuta

**RUBEN GORROTXATEGI** ▶ aurreko Bertso Parrandako irabazlea eta aurtengo parte-hartzailea

## “Guk bertsotan gozatzea eta entzulea gozaraztea nahi dugu”

Azaroan hasiko da aurtengo Bertso Parranda. Bi urtean behin antolatzen du Erniarraitz Bertsozale Elkarteak txapelketa, eta prestatuta dute aurtengo ere. Zortzi taldek hartuko dute parte, eta azaro eta abenduko ostiral gehienetan izango dira saioak Azpeitian, Azkoitian eta Errezilen. Ruben Gorrotxategi da, Mikel Berasategi eta Jokin Urangarekin batera, aurreko edizioko irabazlea.

“Gu bezalako bertsolarientzat plaza polita eta egokia da Bertso Parrandakoa”, dio Ruben Gorrotxategik. “Guk ez ditugu plaza asko egiten, eta tabern lagun giroan bertsotan egitea polita da”.

Iazko irabazleak ez dira oraindik entrenatzen hasi. “Entrenamendurik onena bertso eskolara joan eta bertsotan aritzea da, baina denbora behar da horre-

tarako ere. Gure helburua ez da txapelketa irabaztea, guk bertsotan gozatzea eta entzulea gozaraztea nahi dugu”. Hala ere, “aurreko txapelaren ondoan bada beste batentzat ere lekua”, dio.

Aurten, txapelketako taldeetan aldaketak izan dira, baina Gorrotxategi berriro Berasategirekin izango da: “Beti Mikelekin ibili naiz, eta nik esan nien, Mikelekin ez banuen kantatzen, nahiago nuela ez kantatu”. ◀

### **AZAROAK 24** ▶

**Lehen kanporaketako azken saioa.**

- ▶ 23:00etan.
- ▶ Azpeitian Mendizaleetan.
- ▶ Erniarraitz Bertsozale Elkarteak antolatuta.

# ...ETORRI



## Besterik ▶

### **ANTZERKI TOPAKETAK** ▶

#### **Aurkezpena.**

- ▶ 12:00etan.
- ▶ Udaleko areto nagusian.
- ▶ Udalak antolatuta.

#### **‘Kanika Zuri beltzak’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Artea’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Igandeetan piratak, jai’.**

- ▶ 18:00etan.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘An Revoir triunfadoreak’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Larru haizetara’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Ni ez naiz txotxolo’.**

- ▶ 18:00etan.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Kulunka’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Ongi ibili’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Kulunka’.**

- ▶ 21:30ean.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.

#### **‘Pizti domatzailea’.**

- ▶ 18:00etan.
- ▶ Izarraitz pilotalekuan.



# HITZ BATEAN

## komunikatzailea

Bertsolaria, kazetaria, euskaltzalea, kantaria...  
Hitz batean, zer da Euzkitze? Komunikatzailea dela dio. Eta nongoa? "Nazionalitateko bikoitzekoa..."

► Testuak: Enekoitz Esnaola (Zarautz) ► Argazkiak: Enekoitz Esnaola, 'Berria' eta ETB

### Bertsolaritza ►

## "Semeak bertsoak eskatzen dizkit eta ez daukat herdoiltzerik"

**A**rain dela 8 urte utzi zenuen bertso plazei. Nola gogoratzen duzu eguna? Goizean jaiki eta erabakita al zenuen?

Ez. Gainera, ondorenerako saio batzuk hartuta nituen, zortzi-hamar bat.

#### Zergatik utzi zenuen?

15 urte lehenago, adibidez, desiratzen egoten nintzen ea nork deituko saio baterako. Eta halako tokira joan behar nuenean, goizean goizetik ilusioa izaten nuen, iritsi eta bertsolari artean egon, ahal zen ondoen kantatu, egindako lanari buelta batzuk eman bueltan...

#### "Bale" esan nuen arte...

Denok dugu ego puntu bat, batzuek puntu eta koma ere bai, eta denoi gustatzen zaigu estimatuak sentitzea, eta neuk ere, duela 8 urte, herri batetik deitzen zidatenean poz hartzen nuen, baina unea iristen zenean... Ikasle

garaian igandeetako sentsazioa izaten nuen bertsotarako abiatu behar nuenean eta hori ez zen posible. Eskolara derrigorrean joaten nintzen eta piper gehiago ez nuen egiten, gurasoengatik, eta piper egiteko sentsazioarekin bertsotan ibiltzea ez zen posible. Bertsotara gosearekin joan behar da eta ni, "bukatuta balego!" esanez joaten nintzen. Neure egoera pertsonalak ere izango zuen eraginik, bereizketa prozesuan sartuta nengoelako.

#### Eta igo zinen Soraluzen egun hartan oholtzara, eta?

Han beti oso gustura kantatu izan nuen, estimatzen nindutelako, nik ere bai haiek, eta pentsatu nuen: "Ez duk leku txarra". Euskadi Irratiko Nikolas Aldai zegoen han grabatzen. Aldaik-eta presaren arabera igual ez zituzten grabatzen azkeneko agurrak, eta esan nion saio erdian, beregana joanda: "Hi, Nikolas, gaur agurrak

grabaitzak, badaezpada". Orduantxe ikusi nuen huraxe zela unea. Inork ez zekien ezer, orduantxe erabaki nuelako. Une batean ere ez dut haren damurik izan.

#### Bota zenuen, eta?

Eskailerak jaisten ari ginela, Andoni Egañak esan zidan: "Hau tenporala duk". Nik: "Bai, ekaitza". Ez, ekaitza ere ez zen; gehiegizko barealdia, izatekotan.

#### Ez duzu esan itzuliko ez zarenik.

Ez, baina ez da litekeena bueltatzea. Beroaldiak, ordea, izaten dira eta...

#### Izan ere, kantatu, kantatzen duzu.

Bai, azkena San Miguel egunean, irailaren 29an. Zumaian, San Miguel Artadin. Lehen, urte askoan jardun izan dut han, maiz Lazkao Txikirekin. Azkeneko aldiz bizirik hantxe ikusi nuen, gainera, hura. Elkarrekin harreman gorabehera-



Euzkitze, Zarautzen, bere etxe atarian, urte...

## Azkena

1998ko abenduaren 11n, Sorluzen, taula gainean kantatzeari adio esan zionean, Euzkitzek botatako agurreko bertsoa.

*Bertsoak denetik du gazi eta gozo, batzuetan gazitik gehiegi akaso. Kasik atzo goizean esan nuen kaixo, agurrera iritsi naiz pausorik pauso. Adio bertsozale maite zaitut oso.*



Euzkitze, bi garaitan.

## “Bolada batean

bakardadea sentitu nuen. Oiartzunen kontsigna zegoen: ‘Euzkitzeri ez deitu’”

“Inoiz ez dut aitortu: 15-16 urte nituela garrantzitsua izan zen Azpeitian Lopetegik-eta eman zidaten babesan”

tsua izan eta gero, azkeneko aldian besarkada bat emanda agurtu ginen; ematen zuen bage-nekiela gehiago ez genuela elkar ikusiko. Hura hil zenean, Joxe Agirrekin urte asko egin nituen,

baina erretiratu nintzenean denera joateari utzi nion eta kito.

## Baina buelta berriro San Miguel Artadira.

Gu oso-oso hangoak izan gara, ume-umetatik han ibili izan gare-lako, aitaren aldeko denekin. Udarar, igande denetan, lehenago Santiagoko hondartzara, eta bazkaltzera San Miguel Artadira. Horrez aparte, bertakoekin harreman ona izan dut bertso kontuan. Erretiratuta 4-5 urte neramatzala, esan zidaten lehen festa antolatzen zuenak, Joxe Potxolo izeneko batek, ez zuela ni hara berriz ere eraman arteko onik, bera falta zela –hilik zegoen dagoeneko– baina ea joango al nintzen berriro kantatzera.

## Azpeitian ere kantatu zenuen orain dela pare bat urte Joxe Agirre eta Joxe Lizasorekin bertso afarian?

Oso salbuespena zen, ordea. Ospakizun bat zen eta badakit, gainera, ez dudala hemendik 10 urtera haiekin kantatzerik izango.

## Euskal Herriko txapelik ez duzu irabazi. Hori lortu ez izanaz zerikusirik izan al zuen erretiratzeko orduan?

Ez, baina ematen dit amorrua, denok dugulako geure ego puntua. Ni beti irabaztera joan izan naiz. Hau da, neukan ahalaren arabera, irabaz nezakeena irabaztera; batzuetan izan zitekeen finalean sartzea. Beste diskurtsoak, txapelketa lagunartekoa dela eta horiek, faltsuak iruditzen zaizkit.

## Txapeletik gertu egon izan zara.

Batez ere, 1989an. Jon Lopategik jantzi zuen. Eta pena ematen dit orduan irabazi ez izanak. Egingdako lanarekin eta bigarren puntu gehien lortu arren, hirugarren izan nintzen, puntuazio sistema arraro bategatik. Saioa bukatu eta Pastorkura bildu ginen afaltzera. Denak mahaiar jarrira zeuden eta azaldu nintzenerako, egundoko txalo zaparrada jo zidan jendeak. Polita izan zen hura eta asko estimatu nuen; niretzat, igual huraxe izan zen txapela.

## Gustura, beraz.

Ikaragarri. Baina etorri zitzaidan Imanol Lazkano eta esan zidan: “Bai, orain gustura egongo haiz, baina etorriko zaik honen mina ere”. Arrazoia izan du, txapela esku-eskuan izan gabe ez eskuratzegatik.

## Segitzen al diozu bolanteari bertsoak botatzen?

Bai, asko. Aner semeari ere bai.

## Bertsotako plantak-eta hartuta omen ditu semeak.

Ikustekoa da!: eskuak atzean, hankak zabal-zabal, gora begira. Zalea da oso.

## Bertsoak kantatzea eskatzen al dizu?

Bai, eta estutu egiten nau. Harekin ez daukat herdoiltzerik. Bat bukatu orduko, ukalondoarekin bestea eskatzen dit. Egun bat izan zen ikaragarri harrigarria. Alabaren bila Kolonbiara joan ginen, Anerrek eta neuk egun batzuk lehenago bueltatu behar izan genuen eta bidaiari beldurgarri luzea zen. Parisko aireportuan, adibidez, zazpi ordu egin behar izan genituen zain, koxenio txarrrak genituelako. Mutil kozkorak hegaldi luzean lo egin zuen, Parisera iritsi eta logurarik ez eta, halako batean, esan zidan: “Aitta, kantaiek zeozer”. Biok bazter batean jarrira geunden eta hasi nintzen bertsotan eta beldurgarriko pila kantatu nuen, ez sinesteko moduko pila eta, halako batean, ez nahi baino lehenago, burua neure magalean jarri eta lo hartu zuen. Egun hartan adina bertso ez dut sekula kantatu; akaso, Arantzan behin, han saioak bukatzen ez zirenak izaten zirelako.

## Bertsoak idazten al dituzu?

Asko. Oraindik ere astero enkarigu bat izaten dut. Urtean 50 bat. Horretan ez naiz jaitzi.

## Zutaz idatzi izan da: “Euzkitze albistegi ofizial bateko aurkezlea izan zen, eta gero bertsolari plazetan; jendeak hori ez zuen ezkontzen, eta Xabier erre egin zen”.

Arinegi idatzitako gauzak ziren, oinarri handirik gabe.



dialdean egindako elkarrizketan.

» **Baina zuk zerbait sentitzen al zenuen plazetan?**

Batik bat, hoztasuna eta bakar-dadea. Niretzat, bakartasuna oso garrantzitsua da, hori gabe bizitzen ez nukeelako asmatuko, baina bakardadea beste gauza bat da. Eta norberak bilatzen ez duenean eta inguruak pixka bat albora uzten duenean, gogorra egiten da.

**Noiz?**

Ikaragarri gustatuko zitzaidan egin nituen agerpenen hamarretik bat egin behar izatea; adibidez, Jose Mari Aldaia bahituaren askapena eskatzeko egin zen kontzertu hartan kantatu behar ez izatea. Baina nik esaten nituen gauza haiek bertsotan esango zituenerik ez zegoen... Nik galdetzen nien, eskaera jasotakoan: "Baina ez al duzue beste inor?! Nik esan behar al dut berriz ere?!". Neure burua behartuta ikusten nuen. Damurik ez dut batere, ekitaldi haietan kantatzeko

erabakia neuk hartua nuelako, ondorioak zeure gain hartu behar dituzu eta ez dut batere arazorik.

**Ondoriorik izan al zen, ordea?**

Publikoa plazan era denetakoa da baina era bateko publikoak askoz indar handiagoa du; askoz ekimen handiagoko jendea da kultur munduan –eta hori meritua da– eta ahalmen handia dute baten bati bizkarra eman nahi badiote.

**Zuri bizkarra eman zizuten adibiderik?**

Oiartzungoa, esate baterako. Nik han bolada batean urtean seizaizpi saio egiten nituen, auzoetan-eta. Baina, nire garairik onenetan, hutsera pasatu nintzen. Ez dakit zer gertakariarekin lotu behar dudan. Ez zen Oiartzungo baten mania partikularragatik gertatu. Ez. Kontsigna zegoen, dudarik ez: 'Euzkitzeri ez deitu'. Beno, saio batean kantatu nuen, kasualitatez: *Argia*-ren aldekoa zen, ez genuen kobratzen eta pentsatu

**Azkar-azkar**

**Bertsolari bat?** Joxe Agirre.  
**Plaza bat?** Arantza.

nuen joatea. "Nik hauei zer erakutsi behar diet, amorrua? Ez-ez. Natural-natural joango nauk", neure artean. Kantatu nuen, baina beste 3-4 urtean batere ez zidaten deitu. Hori ez dut sekula kontatu baina orain naturaltasun osoz kontatzen dut, distantziarekin askoz hotzago kontatzeko moduan nagoelako; gainera, minik gabe kontatu dut.

**Baina gertatutakoa ez duzu ahaztuta.**

Ez. Beharbada, pare bat unetan gauzak adierazten ez nuen asmatu, eta hori egia da. Gauzak esaten ere jakin behar da.

**Erretiratu eta gero, zerbait egin Oiartzunen?**

Begira, 1998an erretiratu nintzen eta hilabete gutxira dei bat izan

nuen handik. Esan nien erretiratu ta nengoela eta, gainera, 10 bat urtean Oiartzungo dei baten zain egona nintzela, ez nindutela sekula hotsegin eta berandu zebiltzala. Ez nintzen joan. Ondo uler-tu zuen deitu zidanak.

**Denetik bizi izan duzu.**

Bai. Eta bada garai bat gogoratu nahi dudana, publikoki inoiz aitortu ez dudana: nire bertsolari hasieratan Azpeitian izan nuen babes-besa. 15-16 urte nituela, Azpeitian Joxe Mari Altuna, Jexux Lopez-tegi, Eduardo *Kaminburu*, Nuar-beko Juan Kruz, Azkoitiko Agustín *Ibergun* eta neu biltzen hasi ginenean, astean hiru-lau aldiz. Udalak lokala utzi zigun, Sindikatu Zahar gainean. Argindarrik ez zegoen eta kandela-argitan kantatzen genuen, luzaroan. Txapelketa bazetorren, puntuak jartzen zizkidaten haiek, lau oinak gero... Niretzat garrantzitsua izan zen neu baino zaharragoak ziren haien babes-besa.

**Kantagintza ▶**

**“Bertsoekin-eta CDa eta liburua ateratzeko asmoa dugu hiru lagunek”**

**2000an diskoa atera zenuen: Argitzaletan. Aurrena. Ez du jarraipenik izan.**

Nik orduan bat atera nahi nuen, ez gehiago.

**Baina disketxeak beste bi ateratzeko klausula sinatuarazi nahi zizun, ezta?**

Bai. Baina nik ez nuen nahi besterik ateratzerik kontratuak hala ziolako eta ez nuen sinatu.

**Zenbat disko saldu zenituen?**

Pare bat mila. Durangoko Azokan, lau egunean mila.

**Emanaldiak?**

Aurkezpenak baino ez: Bilbon, Zarautzen, Andoainen, Azkoitian eta besteren batean. Lau-bost lekutan eman nahi izan genituen.



Euzkitze, kantari telebistan.

**Azkar-azkar**

**Kantari bat?** Paco Ibañez.

**Disko edo abesti bat?** Abestia: *Geure bazterrak*, Mikel Laboarena.

**Asmo berririk bai?**

Bai. Javier Carballo Zumaiako argazkilari on bat da, hura da hemen inoiz eta inolako zalantzarik gabe eta bigarrenari alde handia kenduz, pilotari buruz argazkari gehien atera duena: espezialitate denetako pilotalekuak, auzo-eta-koak, kontsejupeak, eliz atariak, pilotagileak, zestagileak... Sekulako lana egina du, milaka eta milaka diapositiba eginda ditu, era denetakoak, oso lan garrantzitsua du, eta Joxan Goikoe-txea musikaria eta hiruron artean badugu proiektu bat: CDan bertso musikatuak joango lirerateke eta liburuan argazkiak, bertsoekin-eta.

Euskara ▶

# “ETBn agindua dugu kirol elkarrizketak gazteleraz egiteko eta kritikagarria da”

**A**ner semeak 5 urte ditu eta hika egiten dizu.

Neuk geure aitona Guillermori gauza bera egiten nion. Akordatu egiten naiz horrekin. Amona Elvirari ez zitzaion batere gustatzen hori eta gozo-gozo esaten zidan: “Xabier, aittitteri ‘zu’ esan behar zaio, ‘hi’ esatea oso zatarra da”. Aitonak: “Hik ez egin kasorik, hik niri ‘hi’ esan”, eta barregura ematen zion. Anerri jendeak esaten dio: “Aitari hika egiten al diozu?”. Bera ohartu egiten da hor bada-goela zerbait ezohikoa-edo, eta: “Bai, barregura ematen diolako”.

**Ez da ohikoa, ez.**

Uste dut gure mutilak hika ondo egiten ikasi behar duela, eta horregatik egin izan diot betitik hika. Hitanoari balore handia ematen diot, eta Tolosarekin ETBn hala egiten dut, ETBko euskara arduradunek zalantzak eta desadostasunak agertu izan arren.

**Alaba txikiari nola?**

Hika; noka. Eta Aner ohartzen da eta nahastuta egiten dio, baina hika egiten dionean, oso egoki egiten dio noka, ez toka.

**Azpeitian bertan mutil asko neskei toka hitz egiten diete...**

Galtzen ari da hori, erabat. Errezilen bertan ere aditzen dut neuk halakorik, anaiak arrebari, “hik, zer nahi dek?”, eta ematen dit atzerakada bat... Nahiago zuka aditzea, astakeri hori aditzea baino. Gaizki dagoen kontzientzia ere galtzen ari da jendea.

**EITBn zer euskara maila dago?**

Oso kezkatuta nago ETBko mailarekin eta, bereziki, Euskadi Irratikoarekin. Orain arte uste izan dut Euskadi Irratiko esatariak Euskal Telebistakoak baino oinarri hobea zuela, baina uste hori



Donostian, EITBren egoitza atarian.

“Semeari esaten diote: ‘Aitari hika egiten?’. Badaki ezohikoa dela eta: ‘Bai, barregura ematen dio’”

“Dударik gabe, ama izan dut euskara irakaslerik onena. 4-5 urte neuzkala ariketak egiten genituen”

## Azkar-azkar

**Euskaltzale bat?** Ez zait inor burura etortzen...

okertzen ari zait. ETBn baditugu euskara arduradunak, berandu jarrita, baina baditugu. Eta testu denak gainbegiratzan dituzte. Oinarriak ere jartzen dituzte. Esate baterako, aspaldi esan ziguten ‘darrai’ ez dela existitzen eta neu, harrituta, Lizardiren letra bat etorri zitzaidalako, baina ez bada

existitzen, ez da existitzen. Baina Euskadi Irratian oraindik askotan eta askotan aditzen dut ‘darrai’. Hori ez da esatariaren akatsa bakarrik, plangintzarik-eta ez duen irratiaeren akatsa ere bada hori.

**Fijatu zalea al zara?**

Zenbat urtean ote dago iragarki hau Euskadi Irratian? “Bastida Tximiniak. Azpeitiako Landetan”. Gaizki deklinatuta dago! ‘Azpeitiko’ da! Orain, berriz, esaten dute: “Abea Altzariak, Azpeitin”. ‘Azpeitin’! Inoren eskuetatik ez al da pasatzen hori?

**Makina batek esaten dute Azpeitian ‘Azpeitin’.**

Eta lehen denek ondo esaten zuten.

**ETB1ek zuzendari propioa behar duela esana duzu.**

ETBn batek egon behar du ETB2 axola izango ez zaiona eta adarrak hautsiko dituela behin eta berriro ETB1eko programazio hobearren, orekatuaren bila. Baita ETB1eko programei ETBn bertan kontra-programaziorik txikiena egitearen alde egingo duena ere. Pentsa, guri orain, *Kalaka*-ri, euskaraz ostegun gauetan egiten den eztabaida saioari, egun eta ordu berean ETB2ko saiorik arrakastatsuen jartzen digute: *Vaya semana*.

**Gai ikusiko al zinateke ETB1eko zuzendari?**

Ez, nik ez dut balio zuzendari izateko edota taldeko buru izateko.

**Euskararen mailara etorrita berriro, txikitik amarekin ariketak egiten zenituen.**

Inolako zalantzarik gabe, izan dudana maisu-maistrarik onena, ama izan da. Zer eratan? Ni mutil kozkorra nintzela, nolabait esanda euskara baturik ez zegoen ar-

tean, baina gure amak bazeukan euskara batuaren behararen kontzientzia. 4-5 urte neuzkala, esaten zidan: “Beno, Xabier, orain pentsatuko al degu ni zure ama izan beharrean, Tolosako izeba naizela? Eta orduan biok saiatu behar degu Tolosan bezela hitz egiten”, Tolosaldekoa delokan euskararik garbiena. Han jarduten nuen amarekin baino makalago hitz egiten, hitzak gutxiago jaten, ahoskera garbiagoan... Uste dut ariketa haiek markatu izan nautela eta oinarri sendoa jarri zidatela.

**ETBn ateratzen al dituzu lankideekin gai horiek?**

Orain aste batzuk ETBko kazetari batekin eztabaida sutua izan nuen. Esaten zidan Xabier Usabiagaren eta neure euskara, “artifizialak” direla, esaldiak osoegi esateagatik-eta. Adibidez, esaten zuen anti-naturala dela ‘gustatzen zatzaizkit’ esatea. Nik: “Zu euskara batua baino gazteagoa zara eta nola arraio liteke euskara batua oraindik artifizialtzat hartzea?! Euskara batuari erabilpen naturala ematen ez dakienarena da, izatekotan, artifizialtasuna”.

**Motibatzen zaituen gaia da.**

Asko. Euskara batua da gure garaiko inbentorik onena.

**Eta ETB1en gazteleraz egitea elkarrizketak? Zeuk egiten dituzu. Zer dago, agindu bat?**

Bai, hala dago orain. Ez denerako. *Kalaka*-n geuk gaur egun elkarrizketa bikoiztu beharra izaten dugu, maiz indarra galdu arren bikoizketagatik. Agindu hori dugu: ETB1en den-dena itzuli beharra dago. Baina ez kiroletan, hor zuzeneko emanaldietan aukera dugulako elkarrizketa gazteleraz ▶

» egiteko. Beharbada, zuzen jokatuta, gaztelaraz esan duten hori euskarara itzuli egin beharko nuke.

**Besteak beste, ia ipar euskal herritar euskaldun denenek ez dutelako gaztelara ulertzen.**

Haientzat baliagarri litzateke. Beste ia denentzat erabat absurdoa, ulertzen dutelako.

**Eta nola sentitzen zara kasu horietan?**

Eroso ez. Kontraesankorra da, gainera, beste garai batzuekin alderatuta. Izan ere, garai batean egon ginen Titin elkarrizketatu ezinda, eta pilotariek esaten ziguten: "Oye, he ganado y no me entrevistas". Agindu hori genuen-eta. Orain beste bat. Onartzen dut, beraz, kontraesankorra dela, eta kritikagarria ere bai.

## Herria ▶

**Nongoa sentitzen zara?**


Nortasun agirian jartzen du azpeitiarra naizela, baina espainiarra naizela ere jartzen du. Beraz, zer balio ematen diozun agirian jartzen duenari... Donostiako ospitale batean jaio nintzen. Derrepente Azpeitira eraman ninduten. Loiolan ikasi nuen 13 urtean. Azkoitian urteetan bizi izan nintzen. Orain Zarautzen. Donostian ere bizi izan nintzen. Kuadrila Azkoitian daukat eta Azkoitirako joera handiagoa izan dut, Azpeitian frontoirik eta pilotako lagunik ez nuelako. Azpeitiarra naizenik ez dut dudarik, baina azkoitiarra ez naizenik ere ezin dut esan. Nazionalitate bikoitza daukat...

### Azkar-azkar

**Herri bat?** Zarautz.

**Txoko bat?** Lekarozko haritzzahar bat.

## Kazetaritza ▶



### ▲ MIKEL SAN JUANEN TAILA, PILOTAZ.

Joxean Tolosa lankidea eta laguna du Xabier Euzkitzek, urteak eta urteak daramatzatelako elkarrekin ETB1 en pilota partidak ematen. Tolosak berak 1989an buruz buruko finala irabazi zuen, Julian Retegiren kontra, 22-19. Eta behin final hartako pilota bat oparitu zion Euzkitzeri. Honek kaxoian eduki izan du luzaroan, baina orain beste erabilpen bat eman dio. "Mikel San Juan azpeitiar tailagileari eman nion, zerbait egiteko. Eta hark taila haxe egin dit, orain dela gutxi. Tolosak, tailan ikusten den bezala eusten zion pilotari bere garaian".

## “Ia 20 urte daramatzat aurpegia ematen telebistan”

**Bi mila pilota partidatik gora eman dituzu telebistan. Hor ez al zara aspertzten?**

Ez. Orain dela gutxi, sanmateotan, saturazio handia izan nuen, zortzi eguneko epean bost saio izan eta bost aldiz joan behar izan nuelako Logroñora. Errepideak asko erretzen zaitu. Baina gero hamabost egun batere partidarik eman gabe egin nituen, zesta puntako Munduko Txapelketa egon zelako tartean, eta azkene-rako luze egin zitzaidan.

**Gustura zaudela, alegia, ETBn hor.**

Oso. Ikaragarri gustatzen zait pilota. Partidak ematean zu ez zara protagonista, bertsotan bezala. Ez da gauza bera partida kontatzea eta partida jokatzea. Eta lan erraza da, gainera. Burukomin gutxien ematen didan lana da.

**Garai batean zailagoa zenuen. Anaia buruz buruzko finalean ondoan izan zenuen pilotakadak kontatzen...**

Aldatu dira garaiak, bai. Estatisti-

kak neure 'botileroak' ematen zizkidan orduan...

**40 urte dituzu. 17 urterekin hasi zinen kazetaritza munduan, Euskadi Irratian. Azkoitiar taxista bati esker...**

Eduardo taxistari esker. Gure osabaren laguna zen eta gogoko ninduen. Nonbait, ikusten zuen erraztasuna banuela hizketarako eta egun batean esan zidan: "Hi, nik Otermin laguna diat eta haren etxera joan behar diagu bazkaltzera". Zuzendaria zen orduan



Joxe Mari Otermin, baina nik ez nekien zertara gindoazen ere. Joan ginen, Donostiara, ari ginen bazkaltzen eta Eduardok: "Hi, Joxe Mari, hau hizketan egokixe duk eta honek egingo likek ba...". Bestea ere geratu zen... Baina handik pare bat hilabetera abisua izan nuen, irratian kiroletarako behar zutela kolaboratzaile bat eta proba egitea joan nahi izanez gero, joateko. Hogeitabat lagun bildu ginen, proba bat egin ziguten, ez nuen itxaropen handirik, eta neu hartu. Hala hasi nintzen. Denetik egin nuen pixka bat: pilota, futbola, aizkora, arrauna... Eskola ona da.

### **23 urtean zabilta komunikabideetan. Telebistan ia dentan. Beti aurkezle?**

Hasiera aldean, albistegietara pasatu nintzenean, ibili nintzen bideoak-eta egiten, erredaktore lanak egiten. Bestela bai, ia beti aurpegia ematen, ia 20 urtean.

### **Dantzan egitera iritsi zara...**

Horri dantza hotsegin behar badiegu... Xapre baino soinu jole ho-beak ia denak dira Euskal Herrian, hori berak ere badaki, baina esaten du: "Hi, nik elizan jo behar baldin badut, zintzo aurpegia jartzen diat. Eta mozkor kuadrilarekin kalean ibili behar baldin badut, haien erara ibiltzen nauk". Azkenean, profesionaltasunak eta zeure ofizioak horretara eramaten zaitu. Nik gaueko *show* ganberro bat aurkeztu behar nuen eta dantza egitea tokatzen zen, zeure gustu, aurreiritzi eta aurrebaldintzak alde batera utzita.

### **Lasai, ETBn behintzat, ez dago dantza lehiaketarik...**

Lehen egon zen: *Dantzaki*. Baina aste hartan okupatuta nengoen...

### **Zure belarritakoa ospetsu egin zen. Negoziazioetan ibili zinen ETBko zuzendaritzarekin.**

Nik belarritakoa, gure kuadrilako Xabier Zabaleren kontra palaz galdutako apustu baten ondorioz jarri nuen. Galtzaileak, belarritakoa jarri behar. Neuk jartzeko kapritxoia nuen eta ez dakit horrega-

tik galdu nuen partida... Bertso munduan lurrikara sortu zuen. Jarri eta lehen saioa Mutrikun izan nuen eta Lazkao Txikik goitik behera modu bitxian begiratu zidan, ea zer neukan. Orain, berriz, txorakeria mortala dirudi belarritakoa izateak.

### **Baina telebistaz ari ginen.**

ETB1en albistegia aurkeztea eskaini zidaten, "baina belarritakoa kendu egin beharko duzu". Telebistan Jorge Cerratok eta Andoni Basabek aurkezten zuten zerbait, haiek ere bazuten belarritakoa, baina makillajeko gelan uzten zuten tokatzen zitzaizenean. Nik, berriz, esan nuen bertsoetan ere ibiltzen nuela belarritakoa eta nire nortasunaren zati bat zela. Kentzeko, haiek. Ezetz, nik. Negoziatzen ibili ginen, eta orduan haien ustez neraman belarritako "eskandoloso" baten partez, diskretoago bat jartzen utzi zidaten.

### **Zu albistegietan aurkezle zine-la, xingola edo lazo urdinaren garaia izan zen. Zilegi al zen aurkezleek hura jartzea?**

Gehienek jarri zuten. Nik ez.

### **ETBn, xingola jartzeko kontsignarik egon al zen, ordea?**

Ez. Niri behintzat, ez zitzaidan iritsi.

### **Zuk zergatik ez zenuen jarri?**

Hura eragin zuen aldarrikapenarekin erabat ados nengoen -Aldaia bahituta zuten garaia zen; inolako bekaturik eta okerrik egin gabe zegoen bahituta, epaiketarik jaso gabe, eta gaur egun presoek duten egoera baino askoz ere latzagoan zegoen-. Baina beste gauza bat da aldarrikapenak albistegietara eramatea eta, nahiz eta giza eskubideen alde izan, gero beste konnotazio batzuk sartzen dira. Orduan aldarrikapen hura mundu jakin batek bereganatu egin zuen, deskafeinatu egin zen aldarrikapena.

### **Bertsolari izateak lagunduko dizu aurkezle izateko, inprobisazioagatik. Pasadizorik?**

Gogorrena eta lanik zailena, irratiko une bat. Orain dela urte asko, Euskadi Irratian nenbilela, Tolosa-

## **Azkar-azkar**

**Kazetari bat?** Fermin Aramendi.

**Telebistako saio bat?** *Sorginen laratza*.

**Pilotari bat?** Irujo.

**Pilotaleku bat?** Astelena, Eibarkoa.



1999an, Claudio Landarekin, ETB1en *Sorginen laratza* saioan.

Orain lau bat hilabete ehundik gora umek autografoa eskatu zidaten, 'Wazemank' saiokoa nintzelakoan"

ra joan nintzen, Beotibar frontoira. Maiz-eta ziren pilotan, txapelketako partidari. Halako batean, argia joan egin zen. Irratian emititzen segitzeko modua genuen eta estudioetara joko genuela esan nuen, musika pixka bat entzuteko. Baina ez dakit zer pasatu zen, musikarik ez zela sartzen eta ni, zuzenean, gauzak kontatzen. Segi hizketan, segi hizketan, neuk apuntatutako daturik ezin nuen leitu ilunpe hartan, eta aldameneko kazetariak-eta han ikusten nituen -Karmelo Otaegi tar-tean zen-, "zer ari haiz, moteil?" galdezka. Zertan ariko nintzen ba?! Zuzenean irratian. Neu baino ez. Puskatera neuk: "Oraingoan bai, musika pixka bat entzungo dugu". Eta orduan ere huts! Non ote zegoen estudioetan teknikaria? Segi hizketan, beraz. Hiru ordu laurden egin

nituen berriketan, isildu ere egin gabe. Halako batean sartu zuen musika. Hilkonuen!

### **Egun hartako audientzia daturik?**

Ez, ez dago...

### **Beste pasadizorik?**

Hasi genuen albistegia, nahasketa mahaia hondatu egin zen eta bideorik ez zen sartzen. Albistegian zazpi minutu egin genituen batere bideorik gabe. Neu aurkezten, eta artezlea segitzeko esaten keinuka. Izerdi askorik ez dut botatzen neuk baina orduan patsetan nengoen. Betitik kritikorik zorrotzena ama izan dut eta, albistegia bukatu zenean, tonto plantan hotsegin nion, eta amak: "Xabier, gaur albistegian zeozer pasatu al da?". "Zer ba?", nik. "Ez dakit -amak-, zeozer desberdina izan da, baina oso natural".

### **Wazemank-en ere 'hasi' zara.**

Arrakasta handiarekin, gainera...

### **Kontatu behar duzu Zubietakoa.**

Orain dela lau bat hilabete Zubietara joan nintzen, Realaren denboraldi-aurreko lehen entrenamendua ikustera, Aner semearekin, Garazi alabarekin eta bi sahararrekin. Harmailtan eseri ginen eta, halako batean, mutil kozkor bat etorri zitzaidan, autografoa eskatzera. Ondoren, segidan ume pila bat, ehundik gora bai; ez ilaran jarrita, guztiak gainera. Egundoko izerdiak atera nituen; bero egiten zuen. Sinatu eta sinatu. Baina pentsatzen nuen: "Hauek denek ez naitek ba ezagutuko?". Izan ere, telebistan gaueko lanetan ibili izan naiz, umeentzat ez dira orduak, eta denak ere ez ziren euskaldunak izango, baina badakigu zer izaten den umea eta... Hala behintzat, neska bati sinatu nion eta neska hark aldamenekoari: "Hau, zein da ba?". Besteak, harrituta bezala: "Ez al duzu ezagutzen? *Wazemank*-ekoa". Sinatzen segitu nuen... ◀

elkarrizketa osoa  
www.uztarria.com-en



# anastasio esnaolaren AZKEN HATSA

Anastasio Esnaola ekainean hil zen,  
eta orain 'Barrua huste aldera' liburuan haren  
azken 30 urteetako poemak bildu dituzte

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Enekoitz Esnaola

**A**zpeitiarra jaiotzez, zarauz-  
tarra bizitzez, fraide fran-  
tziskotarra bizieraz: irak-  
aslea lanbidez eta idazlea  
bihotz-bidez...!. Horrela deskriba-  
tzen du Paulo Agirrebaltzategik  
Anastasio Esnaola. *Barrua huste  
aldera* euskarazko poema liburua  
argitaratu du Arantzazuko Editori-  
alrak, Esnaolaren azken 30 urte-  
etako poemak bilduz. Ekainean  
hil zen fraidea, 73 urte zituela,  
liburua argitaratu aurretik.

Agirrebaltzategi, Esnaolaren  
laguna eta liburuaren editorea  
izan da "Maitagarria eta leiala  
zen. Eta langilea".

Agirrebaltzategik berak azaldu  
bezala, "pena da" Anastasio Es-  
naolak liburua argitaratua ezin  
ikusi izana. Izan ere, liburua in-  
prentarako prestatuta zela uste-  
kabeen hil zen Esnaola.

Nahiz eta beste zenbait lan ar-  
gitaratuak izan –Ramón María  
Valle Inclánen *Buhame-argiak*  
euskarara itzuli zuen–, liburu hau  
argitaratzeak "ilusioa"  
egiten zion. "Opera-  
tuta egon zen hura eta  
behin bisitara joan  
eta ilusio handiz  
ikusi nuen. Gero,


beste behin, Zarautzera joan n-  
tzaion bisitan eta liburuaren sar-  
rerrerarako neuk idatzitakoa eman  
nion irakur zezan. Orduan ere  
gustura ikusi nuen, eta asko es-  
kertu zidan egindako lana".

► **BIZITZA.** Esnaola irakaslea  
izan zen Zarautzen Frantziskota-  
rretan (Zarautzen 47 urte egin zi-  
tuen bizitzen; Azpeititik kanpo 60  
urte zeramatzen) eta denbora li-  
brean beti idatzi izan zuen.  
"Poema batzuk argitaratu ditugu,  
baina Anastasiok gure esku  
askoz gauza gehiago utzi zituen.  
Liburuan dauden baino askoz  
poema gehiago eman zizkigun.  
Poemez gain, antzerkiak, saiake-  
rak, bertsoak... ere idatzi zituen".  
Hasieran bertsoez eta poemez  
osatu nahi zuten liburua baina,  
gehiegi luzatuko zela-eta, azke-  
nean poemak baino ez dituzte ar-  
gitaratu. ◀

“Garrantzitsuena  
ez da bateko edo  
besteko euskara egitea,  
euskaraz egitea baizik,  
eta nik egiten dut”

**ANASTASIO ESNAOLA** ►

2002ko otsailean Uztarria  
aldizkariko erreportaia esana



## Poema

**HITZ BERRIAK IKASTEN** ►  
'Ez gara geu' bilduma  
(1975).

► Donostiatik Azpeitiara  
nentorren trenez;  
aurrez aurre  
nituen bi emazte,  
berriketan  
azkar  
erderaz zegiten.  
Erdi lotan nonbait  
nintzela  
zerbait galdetu zeutaten.  
Nola?  
Ez dut konprenitu  
erantzun nien.  
Konprenitu ez da  
esaten, ulertu baizik  
erantzun zidaten.  
Eta erdaldu zirela  
uste nuen  
berriketan erdaraz  
ari zirelaz gero.




## ▲ SENTIMENDUZKO 100 KILOMETRO.

Xabin Aranagak irailaren 30ean Santa Cruz de Bezanan (Kantabria, Espainia) 100 kilometroko lasterketan hartu zuen parte, baita bukatu ere. Lasterketa ondoren, berak esan zuenez, proba bukatzeko "arrazoi sentimentalek pisu handia" izan zuten. "Azkeneko urtean nire bi lagun-min hil dira (Jexux eta Juan Mari) eta haiei eskaini nahi nien proba", esan zuen. Argazkian, Aranaga helmugan zerura begira.

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Miguel Odriozola

## Efemerideak ▶ azaroa



Herriko plaza. NEREA URANGA

# herriaren BILAKAERA

Kale eta plazetako izenak aldatu, obrak egin...; herriak ere eboluzionatu du

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

### AZAROAK 2-1591 ▶

**Sagardoaren prezioa.** Sagardo pitxarrari hamabi maraiko prezioa jartzea erabaki zuten herriaren aldetik. Saltzeko sagardoa zutenen zerrrenda osatu zuten, eta 40 upel agertu ziren.

### AZAROAK 9- 1931 ▶

**Kale izenak jarritz.** Nuarbetar batzuk egin zuten eskaeraren berri emanez, auzoan dagoen kale bakarrari Ebangelina Aitzondo deitura jartzea egokia zela esan zuten, auzoak Frantzisko Arozena eta haren emazte Ebangelinagandik mesede handiak jaso zituela eta. Horrela egitea erabaki zuten.

### AZAROAK 15-1904 ▶

**Izen aldaketa.** Zinegotzi batek egin zuten proposamena onartuz, herriko enparantza nagusiari 'Plaza Mayor' deituraren tokian, 'Plaza de los Fueros' jartzea erabaki zuten.

### AZAROAK 19- 1996 ▶

**Erasoak.** Aurpegia estalirik zera-maten hamabi bat lagunek Eus-



Nuarbe auzoa. NEREA URANGA

kotreneko autobus bat erre zuten.

### AZAROAK 23-1996 ▶

**Ikasle Eguna.** Ikasle Eguna izan zen herrian, Ikasle Abertzaleek deituta. Egun hori *Autoritarismo-ari tuturu* lelopean antolatu zen.

### AZAROAK 25-1901 ▶

**Obrak herrian.** Udalak, Azoka plaza berriaren obren zuzendaria egin zuten proposamena irakurri ondoren, maiatzaren lehen eguna obra bukatzeko epe bezala jartzea erabaki zuten. ◀

## Pertsonaia ▶

### AGIRRE TXAPELDUN.

Leire Agirre eskalatzaile azpeitiarrak 2000. urteko azaroaren 25ean Espainiako Kirol eskaladako Kopa lortu zuen. Beraz, aurten 6 urte beteko dira Espainiako Kopan txapelkun izan zenetik. Txapelketa horretaz gain, beste hainbat irabazi ditu.



## Datua ▶

# 1999

### EAJ ETA EA-REN AKORDIOA.

1999ko azaroaren 19an, herriko Euzko Alderdi Jertzaleak (EAJ) eta Eusko Alkartasunak (EA) udal akordioa sinatu zuten. Hitzarmen horretan adostu zuten bi taldeen artean Udala gobernatzea. Gaur egun ere Azpeitiko udal gobernuak bi alderdi horiek osatzen dute.

## Argazkia ▶



### HAMARKADA BAT MARTXAN DELA.

Azaroaren 17an 10 urte beteko dira Ikasberri Azpeitiko Ikastolaren eraikina inauguratu zutenetik. Inaugurazioa 1996an izan zen. Urte horretan bertan sartu ziren ikasleak hara. Argazkian, eraikinaren lehen harria jarri zuteneko ekitaldia.

Kontua da... ▶

## Agintarian aurkako neurriak



Imanol Elias  
Odriozola

**P**robintziako Gobernadoreak 1881eko apirilean emandako agindu batbetetabilduziren udalbatzarrean bi egun geroago, agintaritzan.

Lehen agintariei leporatzen zitzaizkienak ez ziren nolanhiko ekintzak, 1877tik 1880ra bitarteko diru kontuen berri ematean akats handiak egitea, borroka garaian generoa eman zutenei gehiegizko ordainketak egitea kasu batzuetan eta beste asko ezer gabe uztea, baimenik gabe haragia saltzea nahi zuten prezioan, Aldundiarekin berriz ia hogeita mila pezetako zorra izatea. Agintariak eginiko ordainketen erreziboak, berriz, sinaturik gabe agertzen ziren... Hori guztia kontutan izanik kanporatzen zituzten Gobernadoreak udaletxean ziren agintariak.

Aginduen berri jakin ondoren nahi izan zuen Iturbe alkateak protesta bat irakurri, baina bi bider moztu zioten hitza eta, bere agintaritzak makila mahai gaine-

an utzirik, aretotik irten zuen. Urkiola jaunak adierazi zuen ondoren, aurreko alkatearen ekintza bakarrik batzar horretan ondorengo alkateari bere tokia ematea zela eta ez zela onartzen inolako protestarik. Horrela gauzak, kanporatua zen Iturbe alkatearen ondoren, berekin agintaritzan ziren zinegotzi guztiek alde egin zuten aretotik.

Behin-behineko agintariak izandatu zituzten ondoren, bozketa sekretu baten bidez, Gobernadorearen aldetik aukeratutakoek. Alkatearen lehen teniente bezala Miguel Castiella; bigarrena Hilarion Orbea eta hirugarrena Agustin Olaizola. Erregidore sindiko bezala, berriz, aho batez, Frantzisko Egiguren.

Hilabete batzuk geroago emandako agindu batek zuzenduko zituen gauzak berriro Azpeitian, uztaileko udalbatzarrean bihurtuko zirelako bidalitako alkatea eta zinegotziak lehenengo agintaritzak postuetara.

**Garai bateko Azpeitia** ▶ Inazio Agirrek kontatua

# bizitzaren KARROZA

**Sansebastianetako karroza egilea izan da Inazio Agirre urte askoan; 20 bat karroza inguru egin izan dituela dio berak**

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

**I**nazio Agirre "kale-kalekoa" da; Erdi kalekoa, hain zuzen. Kalean bizita, txikitari, udaletxe azpiko eskolara joaten zen. Gero, 8 urte ingurekin Maristetan hasi zen ikasten, baina berak ikastea baino nahiago izan du beti "pintatzea eta marraztea"; horiek izan dira eta dira haren afizioak.

Zortea izan zuen Inazio Agirrek. Maristetan 8 urtera arte ikasten zen, eta gero jende gutxi segitzen zien ikasketei. "Nik zortea izan nuen, eta 'Comercio' edo deitzen zena ikasi nuen. Guk tailerra eta denda genituen, eta ikasketak egiteko aukera izan nuen", dio.

Baina Agirrerri eskolako gaiak baino gehiago gustatzen zitzaion marraztea-eta. "Maristetan Don Manuel Ferrerrek irakasten zigun. Azaroan hasten ginen eta sanjoseak arte aritzen ginen".

San Jose egunean sariak banatzen zituzten. "Urte batean ez beste denetan jaso nuen saria. Saria eman ez zidaten urtean,



Sansebastianetako karroza bat herriko kaleetan.

**“**Auzoko 14-18 urte bitarteko gazteei Marrazkia erakusten nien, eta gustura ibili nintzen ni han”

**INAZIO AGIRRE** ▶ erretiratua



esan zidaten gehiegi hitz egin nuela eta ez zidatela saririk emango”, gogoratzen du, barrez.

▶ **KARROZAK.** Agirrek, karroza ugari egin du bere bizitzan. Eta asko gustatu izan zaio, gainera, lan hori. Hasieran bakarrik egiten zituen, baina gero bere alaba Mari Karmenen laguntza izan du. "ilkasleak irakaslea baino hobea irten du", azaldu du, alabari aipamena eginez.

Gehienez Azpeitiko sansebastianetarako egin izan du karroza. "Jendea gabonetarako hasten zitzaidan, 'honezkerokarrozak pentsatuta izango duk' esanez, baina nik erregeak pasatu ondoren ekiten nion lan horri". Ez zuen denbora askorik izaten gero...

Baina irakasle ere izan zen 9 bat urtez Agirre. Marrazkiko irakasle, nola ez. Familia aurrera atera behar, eta sos batzuk irabazteko hasi zen irakasle. "Loiolatxon eman nituen nik klaseak. Auzoko 14-18 urte itarteko gazteei Marrazkia erakusten nien, eta gustura ibili nintzen ni han". ◀

## Zaindu ▶ Txiza

Julian  
Bereziartua



**G**ero eta gehiago dira txizari eutsi ezin diotenak; bizi itxaropena kalkulu guztiak hausten ari da, eta arazo hori 50 urtetik gorakoek bakarrik izaten dute ia.

Emakume eta gizonezkoek izaten dute, eta gizentasuna, erditzea, eztula, esfortzuak... lirateke arrazoiak emakumeengan. Gizonezkoen kasuan, askotan, prostatako arazoen ondorioz izaten da.

Maskuria tantaka betetzen da eta zorrotadaz hustu. Muskulu bakarra du eta alboetan elkarri loturiko zuntzak; txiza egitean, batera uzkurten dira. Txizaren irteeran bi muskulu dauzkagu eta uzkurtez txiza barruan mantentzen da. Bere narridura botikaz sendatzen da edo, bestela, ebakuntza bidez; hala ere, borondatez sendatzen lagun daiteke.

Txizari eutsi ezina ez da arrisku-tsua hidratazioarentzat, eta "gehiago edaten badut txiza gehiago egingo dut" esaldia baztertu beharko genuke. Pelbisak iztarretako barrualdea ixten digu eta dituen muskuluek txizari eutsi ezina saihesten lagun dezake, eta ariketak eginez indartu. Ariketak edozein unetan egin daitezke; gorpuzta lasaitu behar da eta ipurtzuloa estutu, bere inguruan baitaude uzkia altxatzeko muskuluar. Bost-hamar segundo geroagolasaitukodugu. Mugimenduak, egunean ehun aldiz eginez gero, ondorio onak emango ditugu.

## JABI JAUREGI ▶ ile-apaintzailea

### Ile luzea ala motza?

Motza.

### Neskei edo mutilei ilea moztea nahiago?

Neskekin aukera gehiago izaten da, baina badira esker oneko mutilak ere.

### Orrazkera tradizionalak edo modernoak?

Modernoak.

### Zeini moztuko zenioke ilea gustura?

Madonari.

### Adin bat?

30 urte.

### Ile kolore bat?

Kobre kolorea.

### Animalia bat?

Txakurra.

### Amets bat?

Hegan egitea.

### Afizio bat?

Eskiatzea.

### Ileapaintzaile izan ez bazina...

Artista. Ez dakit zer arlotan, baina artista seguru.



▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

## Abizena ▶ Zumeta

### Armarria.

Azpeitiko amarran urrez eginko bi zuhaitz berde ageri dira alde banatan. Zuhaitzaren gerialdean lotuta bi basurde gorri ageri dira tente, zuhaitzen alde banatan.

### Banaketa semantikoa.

▶ Zumeta eta Zumaeta jatorri bereko abizenak dira. Zume / Zuma izenek + -eta leku atzizkiek osatzen dute abizen hori.

### Esanahia.

Zumea dagoen lekua edo zumea gordetzen den lekua adierazi nahi du abizenak, hain zuzen.

### Abizenaren kokapena.

- ▶ Azpeitia.
- ▶ Azkoitia.
- ▶ Antzuola.
- ▶ Andoain.
- ▶ Errezil.
- ▶ Bizkaiko zenbait herritan ere bada abizena.
- ▶ Veracruz (Mexiko).

### Abizenaren hedapena.

- ▶ Bergara (1705 eta 1789).
- ▶ Elorrio (1591).

## Esandakoa ▶

“Ibarretxeren kontrako auzia, eromena eta injustizia da, burugabekeria eta bidegabekeria”

### RAMON ETXEZARRETA ▶

PSE-EEko zinegotzia Donostian

“Aralar sortzeko arrazoiak bazeuden baina orain batere zentzurik ez du alderdi bezala mantentzeak”

### IÑAKI REGIL 'MATXOTE' ▶

Aralarreko hautes-burua Donostian

## Zenbat ▶

# 135

### BRUESA ZALE.

Iraurgi Saskibaloi Taldeak Bruesa Donostiako bazkide izateko aukera jarri zuten. 150 lagun inguru egin dira bazkide.



**Gertuko pasadizoa ▶**

# dekoratzaileak AKTORE

**‘Bokadillo baten truke’ liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Azpeitiko Udala ▶ 2004 ▶ Egilea: Pako Aristi**

## KAPITULUA ▶ Dekoratzailerak aktore (44. orrialdea)

Antzerki amateurrek abantaila horixe dauka: edonor izan daiteke aktore. Antzerkirik demokratikoa da. Borondatea nagusitzen da, egin ahala, saiatzea, eta oso aldrebesa ez bazara, eszenariora atera zintezke paper bat egitera. Dena ez delako dirua irabaztea. Beste satisfazioak baditu gizakiak, eta antzerki amateurrek asko betetzen du egiten dutenen barrua, bihotza.

Iñigo Agirrerren kasua da horietako bat. 1981ean jaso zuen deia, Jose Rezabal *Potxolo* eta Jaxinto Arregiri egin zioten omenaldira. Dekoratzailerak behar zuten eszenatokia txukun-txukun ipintzeko. “Lehenengo urteetan

dekoratzaile bezala ibili nintzen. Soreasun arpillera zahar batzuk zabaldu, lurreko bonbilar txo batzuk jarri, horrela hasi nintzen antzerkiaren gurpilean. 82an Antxieta sortu zen eta ja gurpilean sartuta nengoen, edo errotarian, ez dakit zer den, eta segi egin nuen”.

Halare, ez zen berehalakoan agertu eszena erdira. “86an hasi nintzen antzeztzen. Pertsonaje bat falta zuten, eta ‘heuk zergatik ez?’ esan zidaten, nik ‘ezta pentsatu ere!’, ez nuen nahi, eszenara igotze horrek erreparoa ematen dit, gainera ni beti dekoradorea izan nintzen, eta batzuetan hitzemaile edo apuntadore. Baina azkenean egin nuen, eta azken bigarreno urtera arte, geroztik beti papertxoren

bat hartu dut, pisu gehiago edo gutxiago zeukana”.

Entsaio guztietara joaten zen Iñigo, dekoratzailea izan arren. “Beti joaten nintzen, astero bi egunetan, eta azken hilabeteetan ia egunero. Lotura bizia eta handia sortzen da. Norberak daukan zaletasuna, eta gero taldearen giro ona edukitzea da klabea, ni gehiena taldeak lotzen ninduen, denon artean egiten genuelako dena, eta giro ona izan genuelako, nahiz eta momentu jakin batzuetan iritzi kontra-jarriak egon. Taldeak agintzen du, eta bizipoza ematen du aurrera jarraitzeko. Antxieta desgertzea ere, azken batean, hortik dator, taldea falta, zergatik asko egongo dira esplikatzeko, baina”.

Iñigok ez du bereizten bere zaletasuna eta talde giroa, nolabait berotasun hori antzerki amateurrean oinarritzea balitz bezala. “Antzerkia nire zaletasuna zen, eta gustatu egiten zitzaidan. Nik ez dut bereiztu nire gogoaren taldearen baitan, ni talde barruan nengoen. Antzerki amateurra Azpeitian zer izan zen, Antxieta sortu zen, eta horrekin batera Imanol alkatezara sartu zen. Euskal Antzerki Topaketak sortu ziren, eta hor aberastasun handia izan zen, bai pertsonalki neuretzat, eta bai talde bezala, guztiontzat”. ◀



  
**PILDAIN**  
Inmobiliaria  
www.pildain.com  
Harzubia 6, behea  
Tel. 943812167 - Fax: 943150774  
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

  
*Otamendi*  
*Bilvi Denda*  
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

  
ostadar optika  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK  
Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Ibai ●ndo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

  
ORKATZ KULTUR ELKARTEA  
Erdi Kalea, 24



INFORMATIKA ZERBITZUAK



## ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA


- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINZTA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.:943026428 Fax.:943026329  
email:etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

# Hitz gezidunak ▶


	* IZENA ▼		Ikuskizun mota ▼		Soldata ▼		Burdinola ▼		Izana, edukia
	Metatzeko tresna		Zorixarrez		Garraiatzea		Bizkaieraz, iratzea		
Nabarrak		Galdetzaile bat							
Pl., jantzi mota ▼	Zaldia, esaterako ▼								Bokala ▶
Kalekoa	* DEITURA								Ilusioa
								Non atzikia	
								Oso-oso garbi	
Titulu britainiar ▶			Bizkaiko ibaia ▶				Sortu zintuena ▼		
Joan den urtea			Barik				Kiskali		
		Beti, beti eta beti ▶							
		Errep., bor-bor						Bokal errepikatua	
Gauza, gai ▶					Heldu ▶				
Abantzu, ia					Germanioa				
				Sutsu ▶					
				Röntgen					
Margo ▶							Gabezia ▶		●

\* Azeptiar bertsolaria

# Hitz gurutzatuak ▶

**EZKER ESQUIN.** 1. Azpeitiko baserria, Izarraitz auzoan. 2. Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren laburdura. Kortezubiko baso margotua. 3. Euskal sindikatua. Donostiako auzoa. 4. Egokiera, aukera. Erbioaren ikur kimikoa. 5. Bokala. Beldurti. Röntgen. 6. Musika nota. Gaitz mota. 7. Xumea, umila. Zangoaren atal. 8. (Zah.) Zakurra. Landare arantzatsu. 9. Erregai mota.


**GOITIK BEHERA.** 1. Ez hotza eta ez beroa. 2. Burdinola. Animalia ur-lehortar. 3. Ardiaren ar. Jardun. 4. Interjekzioa. Larruak. 5. Bigarren bokala. Gipuzkoako herria, Tolosaldean. Bokala. 6. Barazki mota. Ogi, hitz elkarketan. 7. Sortu zintuena. Nafarroako udalerría, Iruñeko merindadean. 8. Areago. Hiru, zenbaki erromatarren arabera. 9. Zintzarri handi, dunba.






# Soluzioak ▶


## HITZ GEZIDUNAK



## HITZ GURUTZATUA



## UZTARRIAREN URRIKO ARGAZKI LEHIAKETA



**losu Eizmendi** Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 77. irabazlea. **Etxahuneko** txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, losu Eizmendi –eskubian– eta Majjo, Etxahun kutixiak-eko dendaria.

# Zein da hau? ▶



## ERANTZUTEKO EPEA ▶

Azaroak 17 (ostirala)

## NORA BIDALI ▶

Perez Arregi 1, behea

## ZEIN DEN ADIERAZI ▶

## ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

## IRABAZLEARI SARIA ▶

Auñamendiko erosketa txartela

## PARTE HARTZEKO

## BALDINTZA ▶

Uztarran bazkide izan behar da



## AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura


## KAITO TELEBISTA

Grabaturako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

## ORDULARI



Jose de Arletxe, 10  
Tel. 943 81 52 44

# “Jaietan eta zubietan ere lanera joan behar izaten dinat”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



## TXIKITAKO AMETSA.

Gauza asko izan nahi omen zuen Guridik handitzean. “Niri umeak betidanik gustatu zaizkidan, eta andereño izatea nahi ninan txikitari”, dio. “Oso lotsatia” zen txikitari, eta jende aurrean lan egitea behin ere ez omen zuen pentsatu. Hor ari da, baina, ogia saltzen.

**J**ai eta aste egiten du lan Igone Guridik. Okina da. As-telehenetik zapatara Eliz kalean dagoen okindegian egiten du lan, goizetan. Jaietan, berriz, Azoka plazan saltzen du ogia. Garai batean, igandez plazan baino ez zen saltzen ogia, baina gaur egun lehiakortasuna handia da, eta gero eta jende gutxiago joaten da plazara.

**Noiz hasi hintzenan ogi saltzen?**

Eliz kaleko okindegian hasi nindunan, orain 6 urte-edo. Plazara jaietan joaten, orain 4 urte-edo.

**Eta nolatan plazan?**

Orain urte batzuk arte Piedita ibili zunan lan horretan, baina hark utzi zinan eta beste bat hasi zunan. Hark ere utzi zinan eta enpresak han ogia saltzen hasteko esan zidan, eta horrelaxe hasi nindunan.

**Eta zer moduz?**

Leku aldetik, dagoen tokirik txarrera dun Azoka plazakoa. Negan egundoko hotza egiten din han. Arropak bat bestearen atzetik jantzi behar izaten ditin. Udaran fresko egiten din eta ondo, baina bakar-bakarrik egoten naun plaza osoan eta...

**Ogi asko saltzen al da plazan?**

Lehen, garai batean, bi lagun egoten hitunan eta, hala ere, egundoko ilarak izaten omen ziren tarteka. Orain ez dun horrelakorik gertatzen.


**Lan gogorra al da?**

Nik ez dinat zubirik izaten, eta jaietan ere lanera joan behar izaten dinat. Gainera, jende aurrean lan egin behar dutenek aurpegi ona izan behar izaten dinagu. Ogia eroatera datorrenari berdin zaion hik bi ordu edo hamar egin.

**Pasadizorik-edo bai?**

Karrera Erdi kalera duen andre batek leihotik soka botatzen zidan eta nik ogia lotzen zionat. Jendea harritu egiten dun. ◀

Zer da zuhaitz bat sustrairik gabe?



agirre oparidenda - azkue jantzi denda

ederti altzariak

gemma kinkilidenda - haurtxoa haurren moda

iturralde iturgintza

iturundarena oinetakoak - gotain lurrindegia

jone eta maikar estetika zentrua

jostaldi kirolak

deneke behar ditugu gure sustrairak,  
senideak, lagunak...  
Herriak ere baditu.

ALDE ZAHARRA egin zaitetz bazkide - Tel 943 81 08 95






**LUISTXO FERNANDEZ** ▶ Interneten aditua eta euskaltzalea

# “Euskara biziko bada, biziko da Interneten, etxean eta kalean”

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkiak: Luistxo Fernandezek utzia



Luistxo Fernandez, Eibarren, CodeSyntax bere enpresan.

**L**uistxo Fernandez eibartarra azaroaren 8an *Internet eta euskara* lelopean hitzaldia emango du, Uztarria Kultur Koordinakundeak antolatuta. Internetez, euskaraz...; denaz hitz egingo du Fernandezek.

**Aspaldi hasia zara zu Internet munduan. Asko aldatu al da urte hauetan sarea?**

Orain dela 10 bat urte hasi nintzen saltsa hauetan eta orduan gutxi batzuen kontua zen. Teknologiarekin mirestuta geunden lau txororen kontua zen Euskal Herrian, baina gaur egun kristo guztiak erabiltzen du sarea. Ordenagailu batekin lan egitera edo aisialdiko denbora pixka bat pasatzera ohituta dagoen edonork bai, behintzat. Dagoeneko ez da Ameriketako kontua edo gauza teknologikoki oso aurreratu bat, gure bizitzan dago. Funtsean, arima bera da orain dela 10 urte eta orain. Interneten denok bihurtzen gara igorle eta ez bakarrik hartzaile. Eta orain dela 10 urte ere ikus zitekeen komunikatzeko era berri bat zela, eta berrietasun hori da orain ere funtsa.

**Web 2.0 behin eta berriro aditzen da. Zer da hori?**

Etiketa bat da; berba fetitxe bat. Beharbada aplikazio batzuk iritsi dira eta Interneteko erabilera hedapen horretatik heldutasun batera iritsi da. Orain arte erakusleiiho plano samarrak ziren; Interneteko presentzia horrelakoa izan da neurri handi batean. Orain konturatu da jendearen parte-hartzea oso garrantzitsua dela. Promesa hori hasieratik hor zegoen, denok izan gintezkeela informazio emaile, baina orain tresnak eta moduak ari dira sortzen, benetan gu denon ekarpenak batzeko eta trinkotzeko. Sarearen erabilera eta eduki aberastasuna in-

## — Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

### 'Berria'-ren asmoa Azpeitian bai?

Irakurri dudanez, *Berria* euskal enprekin eta kooperatibekin proiektu interesgarria ari da gauzaten harpidetza sustatzeko: *Berria*-k eta enpresak egindako akordioaren arabera, enpresako langileek egunkaria kioskoko prezioaren erdian eskuratu ahal izango dute.

Orain dela gutxi Ormaiztegin Irizarrekin egin zuen hitzarmena, eta Irizarrek harpidetza egiten duen langileari egunkariaren %25 ordainduko dio. *Berria*-k %25eko deskontua egingo dio harpidetzan; beraz, langileari erdi

prezioan utziz. Ona litzateke Azpeitiko enprekin antzekoa lortzea. Ba al da zerbait?

Uztarriak 2004an emandako datuen arabera, herrian *Berria*-ren 353 ale saltzen dira egunero (igandeetako datua da). %87ak euskaraz dakigu eta egitasmo horrekin igo daiteke euskarazko prentsaren kontsumoa.

▶ Iñaki Odriozola

### Tipleak, desafinatu gabe

Azpeitiko Parrokiko tiple talde bat Eskoziara kantatzerara joan zela 50 urte bete direla eta, ospakizuna egin dute, eta atera duten diptikoa

dena euskaraz idatzi dute. 62-65 urte bitarteko jendea eta euskaraz atera dute. Ederki.

▶ Tomax

### Euskarazkoari trataera 'DV'-k

Nagore Aranburu, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmeko gidoilari taldeko kidea da eta filma Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, pentsatzen dut irakurriko zuela *El Diario Vasco*-ko kritika (sinadurarik gabe...): "*La película tiene poquito, muy poquito, poquísimo cine. Es televisión pura y dura. 'Kutsidazu bidea, Ixabel' no es cine. Es*

*cinito. Es cinín. La gente rio mucho y aplaudió a rabiar. La gente de aquí, claro. Porque esto es un piloto de TV dedicado en exclusiva a los autóctonos. De ciudad o de caserío*".

Hori da *DV*-k euskarazko produktu bati ematen dion trataera. Kritikaren egileak ez du kontuan hartu oso-oso zaila dela euskarazko film ziztrin bat egitea bera, eta kritika eraikitzailea egin beharrean eta gauza batzuk baloratu beharrean, egurra ematen du gupidarik gabe. Entzun dut: "*DV*-ren hori ez da kritika, hori iraina da". Euskarazko zinemari iraina, euskarari iraina.

▶ Ion

dartzera datoz. Estadio berri bati deitzeko modu bat da, eta ez du esan nahi erradikalki gauza berri bat denik.

### Bideoak, webgune sozialak, blogak... modan daude.

Formatu horiek dira jendearen produkzioaren zerikusia dutenak. Eta horri deitzen zaio Web 2.0.

### Euskarak eta euskaldunok zer leku izan behar dugu sarean?

Kalean dugun leku bera. XXI. mende honetan hizkuntza bat biziko bada, biziko da kalean, biziko da familian eta biziko da Interneten. Honezkerok, Internet komunikatzeko bide bat da. Euskarak iraungo badu beste 100 urte, Interneten iraungo du; dena lotuta dago.

### Informazio lokalak, Interneten sare erraldoi horretan, zer tarte dauka?

Horretaz ere hitz egin nahi dut hitzaldian. Hori, Internetera datorren uhin handia da. Ea surfeko taula bat hartu eta ondo asmatzen dugun uhin horretan ibiltzen edo tsunami batek bezala aurretik eramaten gaituzten. Internet lokalerak dator; Googlen Urolara dator bere bulegoa irekitzera, nolabait esateko. Informazioa eta bilaketa

## Probokatzer

*Internet eta euskara du izena hitzaldiak eta Luistxo Fernandezi horren nondik norakoen inguruan galdezka hasiz gero, garbi du: "Ni pixka bat probokatzaila naiz horrelakoetan. Ez dakit oker edo zuzen egiten dudan, baina uste dut horretarako ere gonbidatzen nautela". Arreta puntu bat jartzen saiatuko da. "Blogekin euskaldunok ondo ari garelara eta garaiz hartu dugun tren bat dela uste dugu, eta ez da horrela. Trenak pasatzen utzi ditugu Interneten ere, eta orain gauza batzuk ondo egiten ari garelako ez dugu ezer konponduko. Etorkizunean gauza politak egin daitezke eta egin behar ditugu, baina ez ezer sinetsita, baizik eta lana eginda".*

## Hitzaldia

**AZAROAK 8  
(ASTEAZKENA) ▶**

**'Internet eta euskara'**

▶ 19:00etan.

▶ Aitonena I aretoan.

▶ Uztarria Kultur

Koordinakundeak antolatuta.



lokalaren monopolioa euskaldun triteon eskuetatik kanpo egoteko arriskua dago, kanpoko erraldoi horien esku, eta ez dakit konturatzen ari garen. Hor adi egon behar dugu eta estrategiak presatzen eta saiatzen hasi behar dugu. Ez dakit asmatuko dugun, baina behintzat, saiatu egin behar dugu uhin handi horri aurre egiten.

### Zein dira sarean topa daitezkeen euskarazko eta kalitateko produktuak?

Uztarria.com-i txalo, jakina. Orain dela gutxi egin dituzue erabilpen estatistikak publiko eta mila azpeitarretik gora sartzen dira egunero webgunea ikustera, eta egundoko zabalpen maila iruditzen zait hori. Azpeitia guztiak segitzen du uztarria.com, edo hori ematen du, behintzat; bulegoan, pantaila baten aurrean lan egiten duten guztiak sartzen dira webgunera. Hori ere sintomatikoa da,

## uztarria.com

webak lortu duen zabalpena ez du lortu Euskal Herriko beste inongo proiektuk"

astegunetan konektatzen gara Internetera. Nik uste uztarria.com-ek lortu duen zabalpena ez duela lortu, ez euskaraz eta ez gaztelez, Euskal Herriko beste inongo proiektuk. Eta hori nabarmentzeko modukoa da, eta zuek harro egoteko modukoa ere bai.

### Anonimoak, askatasuna, irizitrukeak, lotsa... eta uztarria.com-ek erregistroa. Zer diozu iritzia emateko erregistratu beharraz?

Agerian joateak eztabaida baten kalitatea asko handitzen du. Estiloa eta, oro har, errespetuak elkarrizketa baten kalitatean asko laguntzen du. Uztarriar neurri hori hartzea? Zuek jakingo duzue zergatik hartu duzuen, baina nik uste eskarmentua baduzuela Interneten eta esperientziatik abiatuta aurrera begira urrats positibo bezala ikusi behar duzue. Eta nik uste jendeak onerako dela igarriko duela. ◀

## Euskararen gorabeherak ▶



### **GORA. Ohorezko bazkideak**

Euskararen alde eginiko lanagatik Uztarriak Kontxuelo Odriozola eta Mari Tere Garmendia Ikastolako lehen andereñoak elkarteko ohorezko bazkide egin ditu.



### **BEHERA. Euskarari zubia itxiz**

Amuko zubia itxita dute; erabat itxita, gainera, euskaldunentzat. Izan ere, itxita dagoela adierazten duen kartela gartzeleraz jarri dute.



## Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

**Behatokia 902 19 43 32**

**Elebide 012**

[www.euskararentelefonoa.com](http://www.euskararentelefonoa.com)

[www.euskadi.net/elebide](http://www.euskadi.net/elebide)

## Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu euskaraz lan egiteko”

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarriari dago edonoren eskura

## Bota lasai ▶


### **Atzerritarrentzat euskara ikastaroak**

Atzerritarrentzat hainbat ekimen abiatu dituzte Udaleko Euskara eta Gizartekintza sailek. Helburua, "kanpotik herrira datozenak herrian integratzea da, azpeitiarrago sentituta", zioen Ana Mendizabal Euskara batzordeburuak ekimenaren aurkezpenean.

18 urtera arteko etorkinekin lan egiteko *Etorkizun* programa jarri dute martxan, ikastetxeekin elkarlanean. Programa Mondragon Unibertsitatearekin batera egin dute, eta laguntza gehigarri bat emateko sortu dute. Aurreko ikasturtean proba moduan martxan jarri zuten, eta orain jarraitzea erabaki dute.

Programak bizati ditu: bat ikastetxeetan lantzen da, 4-12 urteko haurrekin, eta bestea Zapo Txoko gaztelekuetan egiten da 12-18 urtekoekin. Eskoletako jardunetan 62 haur dabilta, zazpi taldeetan banatuta: "Iraurgi Ikastetxean eta Azeitiko Ikastola Karmelo Etxegarain hiruna talde daude, eta Ikasberri Azeitiko Ikastolan bat", dio Aitziber Bilbao *Etorkizun* programaren koordinatzaileak. Ikastetxeetan astero ordubeteko bi saio izaten dituzte, 14:00etatik 15:00etara.

18 urtetik gorakoentzat, Udal Euskara Patronatuan, besteak beste, *AISA* programa dute martxan, baina Gizartekintzak ere hainbat ekimen du. Hala, lan munduan gizarteratzeko ikastaroak antolatu ditu. ◀





ondo gordetzeko garaia da



[www.lasao.com](http://www.lasao.com)

100% haritz trinkoa



Santi Lazkano Kirolak

## udazkena negua 2006-2007

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50



### emaiezu beste aukera bat

Deituz gero, zure etxera joango gara bolumen handiko hondakinak jasotzera. Horrela, hondakinak desmuntatuko ditugu berriz erabili ahal izateko eta gure zabortegietan pilatzen diren zaborren kopurua murrizteko.

**bolumen handikoen "etxez etxeko" bilketa**

Prebentzioari aukera bat emateko, nahikoa da dei bat egitea:

**902 54 06 54**

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

**aurrea hartuz, aurrera**

[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)

**943 36 75 34**

UROLA ERDIALDEKO Z. MANKOM.



UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA



UROLA ERDIALDEKO Forbitikoa Inerzia-erregulazioa Mankomunitateko zerbitzuak eta UROLA & MENDIA



Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa